



HADE

ALTE Jokabide egokien printzipioak

Erakunde autonomiaduna



ALTE 2020

© (jatorrizko edizioa) **ALTE, 2020**

Jatorrizko izenburua: *ALTE Principles of Good Practice 2020*

Argitalpen honi edo dokumentu osoaren edo zati baten erreproduzioari buruzko korrespondentzia guztia ALTEren Idazkaritzara bidali behar da (secretariat@ALTE.org).

© (euskarazko edizioa) **HABE, 2020**. Eusko Jaurlaritzako Erakunde autonomiaduna, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.

Itzulpena ALTEren baimenarekin argitaratzen da.

Itzulpena: Hitzurun

Gainbegiratzea: HABE

Lehen argitalpena: 2020ko abendua

ISBN:978-84-09-25634-1

LG: D 01265-2020

Maketatze-lana: Gertu inprimategia

Inprimategia: Gertu inprimategia

ALTE

Jokabide
egokien
printzipioak
2020

Esker-ematea

Jokabide egokien printzipioak landu zituen taldea 2015etik 2019ra aritu zen. Egin zuten ahalegin handia aitortzen eta eskertzen diegu urte horietan taldean aritu ziren pertsoneri:

Emyr Davies
Waldemar Martyniuk (lehendakaria)
Siuani Mhaonaigh
José Pascoal
Michaela Perlmann-Balme
Nick Saville
Graham Seed
Cathy Taylor Henna Tossavainen
Koen Van Gorp

ALTEko beste kide eta afiliatu askok testua aztertu eta iruzkindu dute, eta bereziki, 2018ko azaroan Salamancan egindako topaketan. Ezin denak aipatu lerro hauetan, baina zinez eskertzen diegu beren ekarpena. Gainera, pertsona askok lan egin dute azken 25 urteotan *Jokabide egokien printzipioak* eta *Jokabide-kodea* izeneko dokumentuen aurreko bertsioetan, eta egungo dokumentua haien ahaleginean oinarritzen da. Bihoakie haiei ere gure esker ona.

Ekoizpen-taldea:

George Hammond Design
Eleni Karagianni
Mariangela Marulli
Jane Rust
John Savage
Graham Seed

Edukia

Hitzaurrea	5
ALTEri buruz	6
ALTEren jokabide egokien printzipioak	7
SARRERA	9
1. GOGOETA ETIKOAK	11
1.1 ILTAren kode etikoa	11
1.2 Hizkuntzaren ebaluazioa migrazioan eta integrazioan	11
1.3 ALTEren jokabide-kodea	12
2. JOKABIDE EGOKIEN PRINTZIPIOAK ETA BALIDAZIOA HIZKUNTZEN EBALUAZIOAN	15
2.1 Jokabide egokia lortzea	15
2.2 Erabilgarritasunaren kontzeptua azterketetan	16
2.3 Azterketaren ezaugarriak	17
2.3.1 Edukiaren baliotasuna	17
2.3.2 Konstruktuen baliotasuna	17
2.3.3 Fidagarritasuna	18
2.3.4 Irizpideei lotutako ebidentzia	19
2.3.5 Inpartzialtasuna	20
2.3.6 Zerbitzuaren kalitatea	20
2.3.7 Praktikotasuna	21
2.3.8 Eragina	22
2.4 Ondorioak	23
3. ALTEREN KALITATEA KUDEATZEKO SISTEMA	24
3.1 Sarrera	24
3.2 ALTEren auditoretza-sistema: kontrol-estandarrak, kalitate-profilaren auditoretza	24
3.2.1 Balidazio-argudio baten deskribapena	25
3.2.2 Balidazio-argudio bat eraikitzen: ALTEren gutxieneko estandarrak kalitate-profilak ezartzeko hizkuntza-azterketetan	25
3.3 ALTEren auditoretzaren ikuspegi orokorra	26
3.4 Auditoretza-sistema etengabe garatzen	27
3.5 ALTEren Q marka	27
4. ALTEREN LAGUNTZA ETA BALIABIDEAK	28
4.1 Jarduerak	28
4.2 Materialak	28
4.3 Zerbitzuak	29
4.3.1 ALTEren ikastaroak	29
4.3.2 ALTEren balidazio-unitatea	30
BIBLIOGRAFIA	31

Hitzaurrea

2020. urtea mugarri garrantzitsua da ALTEren historian, 30 urte betetzen baititu ALTE barruko kideen arteko elkarlanak. Lehen bilera 1990ean egin zen Bartzelonan, eta zortzi hizkuntzako ebaluazio-hornitzaileen ordezkariak bildu ziren. Bilkuraren arrakasta ikusirik, urtebete geroago eratu zen elkarte ofizialki, eta elkarlanak ez du etenik izan orduz geroztik. 2020ko urtarrilean, elkarteak eskubide osoko 33 kide zituen, 25 hizkuntzaren eta ehunka afiliatu instituzional eta indibidualen ordezkari.

Hasieratik, ALTEk argi eta garbi zehaztu zituen bere asmoak: Europa osoko era askotako erakundeak biltzea, hizkuntzak ebaluatzeko estandarrak garatu eta ezartzeko, eta hizkuntzak ikasteko eta ebaluatzeko jokabideen dibertsitatea onartzea, bai eta ezagutzak eta jokabide egokiak trukatzeko beharra ere, helburu komun batzuk betetzeari begira. Egitasmo eleaniztun horren historia liburu batean jaso da: *The History of ALTE – The Association of Language Testers in Europe: The first 30 years*. Historia horren zati handi bat ALTEren jokabide egokien printzipioen garapenari dagokio. Dokumentuaren lehen edizioa ALTEren proiektu baten emaitza izan zen, elkarlearen hasieran garatu zena eta emaitza gisa *ALTEren jokabide-kodea* ere izan zuena [1993/4].

Honako dokumentu hau jokabideen hirugarren eta azken edizioa da. 90eko hamarkadan, originalaren berrikuspen xumeago batzuk egin ziren, eta 2001ean, bigarren edizioa argitaratu zen. Ordutik, mundua asko aldatu da, eta horregatik aurkezten dut bertsio berri hau atsegin handiz. Printzipioak berraztertu egin dira, eguneratu eta zabaldu, gure kideekin eta ALTEren sareetako beste eragile batzuekin eginiko kontsulta- eta edizio-prozesu luze baten ondoren. 30 urteko elkarlan horri esker, handituz joan da ALTEko kideen kopurua, eta jokabidearen alorreko komunitate askoz zabalago batek parte hartu ahal izan du azken printzipio hauen berrikuspena elikatu duen kontsulta-prozesuan.

Bi dira nabarmendu beharreko ALTEren jokabide egokien printzipioen ezaugarriak.

Lehenik eta behin, ALTEko kideek hizkuntzen ebaluazioak prestatzean interesdunei begira dituzten beharrei erantzuteko landu dira bereziki printzipioak, nahiz eta ebaluazioaren alor zabalago bati buruzko bibliografian oinarritzen diren nagusiki. Horrek esan nahi du publiko zabal batentzat idatzi direla, eta esperientzia profesional handiagoa edo txikiagoa eta baliabide gehiago edo gutxiago izan ditzaketela. Alde horretatik, printzipioetan erabilitako ikuspegiak bultzada eman nahi dio "hizkuntza-ebaluazioaren alfabetatzeari", eta lagundu egiten die ALTEko kideei eta beste parte-hartzaile batzuei ebaluazioa beren testuinguruetan hobeto ulertzen.

Bigarrenik, printzipioen helburuetako bat da ALTEren kalitatea kudeatzeko sistemaren barruan (*ALTE Quality Management System*, QMS) txertatzea, ALTEren estandarrak ezartzeko eta gainbegiratzeko erabiliko den erreferentzia-dokumentu integral gisa. Dokumentu hori erabiltzen da, hain zuzen ere, kalitate kontroleko zerrendekin eta *ALTEren Q marka* eskuratzeko auditoretza-prozeduren gainerako materialekin batera.

Berrikuspen-proiektua bera lantalde txiki batek koordinatu zuen, lankidetzan planifikatu eta kontsulta-jarduerak ahalbidetu zituen, online eta bileretan eginiko tailerren bitartez. Lantaldeko kideek idatzi zituzten berrikusitako testuak eta atal gehigarriak, nahiz eta azken dokumentua moderazio-lan batetik sortutako prozesu zabal baten emaitza izan. Beraz, kide guztien babesa dauka.

Jakina, beti dago zer hobetua, eta eskertzekoa izango da dokumentuaren erabiltzaileekin feedbacka egitea. Etengabeko hobekuntza xede izanik, feedback hori aintzat hartu eta hurrengo berrikuspenetan erabili egingo da. Hori horrela, interes handiz espero dut laugarren edizioa.

Nick Saville
ALTEren idazkari nagusia

ALTEri buruz

1989an sortu zen ALTE, *Association of Language Testers in Europe* (Hizkuntza Aztertzaileen Europako Elkarte), Cambridgeko eta Salamancako Unibertsitateek egin zuten bilera batean. Europa osoko hizkuntza-azterketetarako estandar komun batzuk finkatzea izan zen lehen eginkizuna, Europako eleaniztasuna eta hizkuntza-ondare aberatsa zaintzea helburu izanik. Funtsezkotzat jo zen, halaber, azterketarietako lortutako kalifikazio linguistikoa haien hizkuntza-gaitasunaren ebaluazio zehatz eta bidezkoa izatea, mundu osoan onartzeko modukoa, eta konparagarria izatea beste hizkuntza batzuetako kalifikazioekin.

2020an, ALTEk eskubide osoko 33 kide ditu, Europako 25 hizkuntzakoak, 60 bat afiliatu instituzional eta mundu osoko 500 afiliatu indibidual baino gehiago (ikus [hemen](#) egungo zifrak).

Honako hauek dira gure helburu nagusiak:

- kalitate-estandarrik eta jokabide egokien printzipioak finkatzea hizkuntzen ebaluazio-prozesuaren etapa guztietarako;
- hizkuntza-egiaztagintzaren nazioz gaindiko onarpena sustatzea;
- hizkuntzen ebaluazioaren kalitatea hobetzea, baterako proiektuen, jokabide egokien trukearen eta interes-talde bereziekin egindako lanaren bitartez;
- prestakuntza ematea eta ebaluazioari buruzko ezagutzak hobetzea hizkuntza-profesionalen artean, bai eta, oro har, komunitatean ere;
- hizkuntza-probekin lotutako gaien inguruan sentsibilizatzea, aldian behingo bileren bidez;
- eleaniztasunaren onurak eta hizkuntzen ikaskuntzarenak sustatzea;
- lidergo bat sustatzea pentsamenduaren alorrean, nazioarteko konferentzien bidez;
- inpaktu positibo bat eragitea hezkuntza-prozesuetan eta gizarteetan, oro har.

Nazioarteko mugikortasuna handitu ahala, gero eta premia handiagoa da kalifikazio linguistiko transferigarriak eta konparagarriak edukitzea, azterketen erabiltzaile nahiz interesdunentzat (hautagai, enplegatzaile, politika-arduradun...) esanguratsuak, norbanakoari benetako abantaila profesional eta sozialak emango dizkietenak. Premia horri erantzuteko, 17 kalitate-estandar ezarri ditu ALTEk bere kideen azterketetarako, hizkuntza-proben prozesuaren etapa guztiak hartzen dituztenak: probak prestatzea, ariketak eta itemak idaztea, probak kudeatzea, puntuazioa eta kalifikazioa ematea, proben emaitzak jakinaraztea, probak analizatzea eta emaitzen txostena egitea.

Ondorioz, azterketen erabiltzaileak (norbanakoak, enplegatzaileak, hezkuntza-erakundeak edo gobernu-erakundeak) ziur egon daitezke ALTEko kideek prestatutako eta eginiko hizkuntza-ebaluazioek estandar profesional horiek betetzen dituztela.

ALTEren Q marka, horrenbestez, hizkuntza-azterketen kalitate-adierazleetako bat da, eta kide diren erakundeek erabil dezakete beren azterketek auditoretza zorrotz bat izan dutela eta ALTEren 17 kalitate-estandarrik betetzen dituztela erakusteko. Q markari esker, azterketen erabiltzaileak ziur egon daitezke azterketa bat prozesu, irizpide eta estandar egokien emaitza dela.

2018tik aurrera, ALTEko kideek elkarkearen eta haren etorkizunaren azterketa estrategiko bati ekin zioten. Emaitza gisa, erakundeari ikuspegi malguago eta inklusiboago bat ematea erabaki zuten, elkarkearen izaera ofiziala aldatuz: hots, Ekonomia Intereseko Europako Talde (EIET; ingelesez *EEIG, European Economic Interesting Grouping*) izateari utzi zion (soilik EB/EEEko kideentzat) eta Erakunde Ongileen arloko sozietate anonimo (*Charitable Incorporated Organisation - CIO*) bihurtu zen (Ingalaterran erregistratua). 2019an egin zen aldaketa horri esker, zabaldu egingo da ALTEren jardueren eta osaeraren hedadura geografikoa, eta lanerako aukera berriak emango dizkio.

ALTEren jokabide egokien printzipioak

Principles of Good Practice for ALTE Examinations izeneko hasierako dokumentua Nick Savillek eta Mike Milanovicek idatzi zuten, 1991 eta 1993 artean, eta ALTEren zenbait bileratan eztabaidatu zen (Alcalá de Henares, 1992, Paris eta Munich, 1993). Dokumentuaren helburuetako bat zen xehetasun handiagoz finkatzea ALTEko kideek beren goi-mailako helburu profesionalak betetzeko erabili behar zituzten printzipioak. Jokabide egoki bat lortzeko xede horri begira, ALTEko –eta, oro har, ebaluazioaren arloko– kideen ekarpenek eragin nabarmena izan zuten: adibidez, Lyle Bachman eta Samuel Messick-en (1980) lanak, edota *Hezkuntza- eta psikologia-proben estandarrak – Standards for Educational and Psychological Testing* (1985) izeneko gidak (American Educational Research Association AERA / American Psychological Association APA / National Council on Measurement in Education / NCME) (1985). ALTEko kideek dokumentuari buruzko feedbacka eskatu zieten elkartetik kanpoko adituei (Bernard Spolsky, Lyle Bachman). Osorik argitaratu ez bazen ere, geroago dokumentuaren zati batzuk erantsi zitzaizkion ALTEk Europako Kontseiluaren izenean landu zuen *Users' Guide for Examiners* izenekoari (*Manual for Language Test Development and Examining* izenburupean berrikusitako eta 2011n argitaratutako bertsio batean; 2014koa da *Hizkuntza-probak garatu eta aztertze eskuliburua* euskarazko bertsioa). 1994an ALTEren jokabide-kodea onartu zen, inpartzialtasunaren aldeko borrokan azterketen erabiltzaileek espero behar dutenaren gaineko eta interesdunek dituzten eginkizun nahiz erantzukizunen gaineko adierazpen orokor gisa. ALTEren jokabide-kodearen lantaldea 2000. urtean sortu zen, eta gutxieneko 17 estandar profesionalak (gutxieneko estandarrak, GE) zehazteko erabili zuten kode hori oinarri gisa. Estandar horiek dira ALTEren kalitatea kudeatzeko sistemaren (ALTE Quality Management System, QMS) erreferentzia komun nagusia (ikus 3. kapituluaren xehetasun gehiago).

2001ean, ALTEren webgunean, *Principles of Good Practice for ALTE Examinations* dokumentuaren bertsio berrikusia argitaratu zen, *Revised Draft – 2001* izenburupean, ingelesez eta galizieraz, eta ALTEren baliabideen dokumentuen multzoari erantsi zitzaion. Dokumentu horrek zehaztasun handiagoz jorratu zituen baliotasunaren eta fidagarritasunaren gai nagusiak, eta aztergai zituen, halaber, azterketek norbanakoarengan eta gizartean duten eraginarekin loturiko gaiak. 2001eko bertsioa, aurreko zirriborroak bezala, *Standards for educational and psychological testing* (AERA/APA/NCME 1999) lanean oinarritu zen neurri handi batean –baliotasunari eta fidagarritasunari buruzko ataletan, bereziki–, eta Bachman (1991) eta Bachman eta Palmer-en (1996) lanetan. Hezkuntza- eta psikologia-ebaluazioari dagokionez, AEBk

tradizio luzea du estandarrak ezartzeko lanetan. 80ko hamarkadaren hasieratik, *Educational Testing Service*-k (ETS) bere kalitate- eta inpartzialtasun-estandarrak sortu ditu (1981, 1987, 2000), AERA/APA/NCME estandarretan oinarrituak neurri handi batean. *International Language Testing Association* erakundeak (ILTA, Hizkuntza Azterketen Nazioarteko Elkarteak) nazioarteko azterketen estandarrak aztertu zituen 1995ean, eta bere kode etikoa argitaratu zuen 2000n (ikus 1. kapitulua).

2015ean, ALTEko kideek lantalde bat sortzea erabaki zuten *Principles of Good Practice* berrikusteko. Kontuan hartu zen ezen, printzipioek dokumentua lehen aldiz argitaratu zenean bezain baliozkoak izaten jarraitzen bazuten ere, agian beharrezkoa izango litzatekeela haren aurkezpena zabaltzea, hizkuntza-azterketen eta ebaluazioaren arloko azken berrikuntzak aintzat harturik; hala nola Europako Kontseiluak ALTErekin lankidetzat estuan eskaintzen dituen ikuspegi soziokognitiboa, ikuspegi etikoa eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren (EEMB, 2001ean argitaratua lehen aldiz) tresna-multzo gero eta handiagoa. Gainera, beharrezko ikusi zuten, halaber, ALTEk azken hamarkadetan onartutako dokumentu estrategiko guztiak hurbilagotik aztertzea, haien egoera, eginkizuna eta hierarkia argitzeko eta, behar izanez gero, berrikusteko; hau da, elkartea definituko duen dokumentu-multzo koherente bat taxutzeko. Lantaldearen lehenengo bilera 2015eko azaroan egin zen, Perugian. *Principles of Good Practice* dokumentuaren azterketa zabalik egon zen ALTEko kide guztientzat, eta aukera eman zuen eztabaida estrategikoagoa egiteko elkartearen misioari eta eginkizunari buruz. Lantaldeak lehen zirriborro bat prestatu zuen, ALTEren *Principles of Good Practice* bertsio berriarena hain zuten –ALTEko kide eta afiliatu instituzional guztiak partekatu eta onartzen dituzten gidalerroen multzo koherente gisa–, eta kide guztiak gonbidatu zituen ekarpenak egitera ALTEren webgunean argitaratuko den azken bertsioari. 2018ko azaroan, osoko bilkura bat eta zenbait tailer antolatu zituen elkarrekin Salamancan, zirriborroa aurkezteko eta kideen iruzkinak jasotzeko. Kideei eta afiliatu instituzionalei eskatu zitzaion arlo tematiko bana aukeratzeko *Principles of Good Practice* dokumentu berriaren lau atal nagusietatik:

- **1. tailerra:** Gogoeta etikoak eta *ALTEren jokabide-kodea*
- **2. tailerra:** Erabilgarritasunaren kontzeptua azterketetan eta azterketen ezaugarriak
- **3. tailerra:** ALTEren kalitatea kudeatzeko sistema
- **4. tailerra:** ALTEren laguntza eta baliabideak

Principles of Good Practice lantaldeko kideak arduratu ziren tailerrak gidatzeaz, eta tailer bakoitzari zegokion arloa aurkeztu eta feedbacka eskatu zuten. Taldeek errelatore bana izan zuten, oharrak eta proposamenak jasotzeko, eta atzeraelikaduraren laburpen bat aurkeztu zen tailerren ondoren egin zen osoko bilkura batean. Interes handiz hartu zen ALTEko kideen eta afiliatu instituzionalen feedbacka, eta kontuan izan zen *Principles of Good Practice* dokumentuaren azken bertsioa idazteko orduan.

Sarrera

Ebaluazio orok aintzat hartu behar du, hizkuntza-ikaslea/erabiltzailea ez ezik, bai eta hura zer egoeratan dagoen ere. Gaur egungo European, edozein hizkuntza-ikasle badaki hainbat faktorek baldintzatzen dutela hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko modua (hezkuntza-faktoreak, sozialak, afektiboak, etab.), eta faktore horiek eragina dutela ikaslearen kognizioan eta hizkuntzaren ezagutzan.



1. irudia: Hizkuntza eta testuinguru anitzeko hizkuntza-ikasle/erabiltzailea


Jakina, hizkuntza-ikasleek/erabiltzaileek "jaiotzetiko hizkuntza" dei daitekeen mintzaira bat edo gehiago izango dituzte ("dialektoak" barne), prestakuntza-aldian erabili dutena/dituztenak. Bizitzan zehar, hizkuntza-hitzaren zentzurik zabalenean erabiliko dute, edota hainbat mintzaira, askotariko testuinguruetan, gaitasun-maila handiagoa edo

txikiagoa duten beste erabiltzaile batzuekin, eta hizkuntza berriak ikasiko dituzte besteekiko hutsune komunikatiboak gainditzeko. Elkarreragin horrek esan nahi du hizkuntza-erabiltzailea hizkuntza eta testuinguru anitzeko hizkuntza-ikastun bihurtzen dela, eta hizkuntza, neurri handi batean, ulermen sozio-kognitibo baten barnean eskuratzen dela.

Ikasleak hizkuntzaren ezagutza eta gaitasun komunikatiboak garatu ahala, beharrezkoa izango da, zenbait egoeratan, ezagutza eta gaitasun horiek ebaluatzea, beharbada gizarteko beste kideei erakusteko maila egoki batean ikasi duela hizkuntza, modu aproposan testuinguru jakin batean parte hartu ahal izateko. "Ikaskuntzara bideratutako ebaluazioaren" testuinguruan (*learning-oriented assessment*; Jones eta Saville 2016), hizkuntza ikasteko prozesuan zehar egiten dira ebaluazioak: ebaluazio batzuk, ikaskuntza-ingurunean; beste batzuk, eskala handian eginiko ebaluazio sumatibo gisa.

Ebaluazio-egoera bakoitzean, ikasleak ebaluazio-ariketa batekin edo gehiagorekin elkarreragiten du, eta elkarreragin horrek errendimendu bat sortzen du. Ebaluazio-ariketa batetik sortzen den errendimenduak feedbacka sortzen du: puntuazio bat izan daiteke eskala batean, edo feedback-mota zehatzago bat. Feedbacka edozein izanik ere –baldin eta *esanguratsua* bada–, eragina izango du ikaslearengan, halako moldez, non ordura arte eskuratu dituen gaitasun komunikatiboak ulertuko baititu, eta lagundu egingo dio, halaber, etorkizunean lortu beharreko gaitasun komunikatiboak zehazten. Gainera, feedbackak probaren beste erabiltzaile eta interesdunei ere eragingo die, bai eta, oro har, gizarteari ere. Zalantzarik gabe, horrek eragina izango du berriro ere ikaslearengan.

Beraz, ebaluazioak kalitatezkoa izan behar du; hau da, hizkuntza-ikasle batek azterketako ariketa bat egiten duenean, lortzen den errendimenduak feedback zehatz eta



2. irudia: Hizkuntzaren ebaluazioaren eginkizuna.

esanguratsu bat eragin behar du. Horrenbestez, inpartzialtasuna funtsezko kezka dugu ebaluazioa bere osotasunean harturik, eta testuinguru bat ematen die jokabide egokien printzipioei. Azterketak hezkuntza-testuinguruetan erabiltzen direnean, norbanakoei ez ezik, erakundeei eta gizarteari berari ere eragiten diete, lehenago azaldu den moduan. Azterketek izan ditzaketen ondorio zabalak direla-eta, garrantzitsua da bai azterketak prestatzen dituztenek bai erabiltzaileek aplikatutako estandarrek ziurtatzea ebaluazio-prozedurak kalitate handikoak izango direla eta interesdun guztiek tratu zuzena jasoko dutela. Era honetako jokabide-kode batek ebaluazio-jokabide egokien printzipio sendoetan oinarrituta egon behar du, kalitate- eta inpartzialtasun-maila handiak lortzeko modua eskaini dezaten.

Dokumentu honen aztergaia –zer den jokabide egoki bat– ahalegin bat da agerian uzteko zer-nolako kezka sortzen duen ALTEko kideen ardurapean dauden ebaluazio-arlo guztietan kontuak emateak. Datu-bilketa bidez eginiko balidazioaren garrantzia aitortzen du, bai eta ikerketaren eginkizuna eta azterketa-prozesuen garapenarena ere. Alde horretatik, litekeena da ondoren zirriborratzen diren printzipioak etorkizunean aldatzen jarraitzea, ikerketa- eta garapen-programak zabaldu ahala.

1. Gogoeta etikoak

Etikaren alorrean, *ILTaren kode etikoa* betetzea espero du ALTEk bere kideengandik. Gainera, ALTEk etika sozialaren garrantzia nabarmendu nahi du: erantzukizun soziala eta justizia ebaluazio guztietan; bereziki, agintari politikoek migrazio-gaietan hizkuntza-azterketak erabiltzen dituztenean. Etika sozialak interesdunen arteko elkarreragina eta lankidetzak dakartza berarekin. ALTEk azaleratu nahi du nolako garrantzia duen erabaki etiko hauek hartzeak, ikaskuntzan teknologia digitala erabiltzean.

1.1 ILTaren kode etikoa

ILTaren kode etikoak funtsezko bederatziko printzipio bereizten ditu. Printzipio horiek filosofia moralean oinarritzen dira, eta jokabide profesional egokia gidatzen dute. Printzipio bakoitzak bere oharpenak ditu, bere izaeraren adierazgarri¹.

Sarrerako oharretan adierazten den moduan, kode etiko honek ez ditu hizkuntza-aztertzaileak salbuesten izenpetu dituzten beste kode batzuek ezartzen dizkieten betebeharrak eta erantzukizunetatik, edota bete beharreko kode juridikoen – estatukoak nahiz nazioartekoak – ezartzen dizkieten eginbeharretatik. Sarreran aipatzen den ohar orokor honek agerian uzten du hizkuntza-probetan parte hartzen duten pertsonen beren ekintzetan iritzi independentea aplikatzeko duten erantzukizuna:

Hizkuntza-aztertzaileak eragile moral independenteak dira, eta batzuetan jarrera moral pertsonala izan dezakete, prozedura jakin batzuetan parte hartzearekin gatazkan egon daitekeena. Eskubide morala dute prozedura batzuetan parte hartzeari uko egiteko, prozedurak beren sinesmen moral pertsonalak urratzen baditu. Hizkuntza-aztertzaileek, baldin eta beren sinesmenekin bat ez datozen egoeretan parte hartzea deitua izan daitezkeen lanpostuak onartzen badituzte, beren enplegatzailea edo enplegatzaile izango dena jakinaren gainean jartzeko erantzukizuna dute. Enplegatzaileen eta lankideen erantzukizuna da hizkuntza-aztertzaile hauek beren lantokian diskriminaziorik izan ez dezaten bermatzea.

1.2 Hizkuntzaren ebaluazioa migrazioan eta integrazioan

ALTEk, Europako Kontseiluko kide gisa, areagotu egin du azken hamarkadan Hezkuntza Politiken Dibisioarekin

¹ Printzipio bakoitzaren oharpenetarako, ikus dokumentuaren bertsio originala: www.iltaonline.com

ILTaren PRINTZPIOAK

- 1. printzipioa.** Hizkuntza-aztertzaileek errespetatu egingo dituzte azterketari bakoitzaren gizatasuna eta duintasuna. Ahalik eta tratu profesional hoberena emango diete, eta pertsona guztien beharrak, balioak eta kulturak errespetatuko dituzte hizkuntza-probak egitean.
- 2. printzipioa.** Hizkuntza-aztertzaileek isilpean gordeko dute profesional gisa lortutako azterketariei buruzko informazio guztia, eta beren irizpide profesionala erabiliko dute informazio hori inoren esku uzteko erabakia hartzeko orduan.
- 3. printzipioa.** Hizkuntza-probak egiten dituzten pertsonen bat egin behar dute nazio eta nazioarteko zuzentarauetan jasotako printzipio etiko guztiekin, edozein saiakuntza, esperimendu, tratamendu edo bestelako ikerketa-jarduera egitean.
- 4. printzipioa.** Hizkuntza-aztertzaileek ez diote inori gaizki erabiltzen utziko beren ezagutza edo trebetasun profesionalak, horretarako gai diren neurrian.
- 5. printzipioa.** Hizkuntza-aztertzaileek jarraituko dute beren ezagutza profesionalak garatzen eta ezagutza horiek lankideekin eta hezkuntza-arloko beste profesional batzuekin partekatzen.
- 6. printzipioa.** Hizkuntza-aztertzaileek partekatu egingo dute hizkuntza-aztertzailearen lanbidearen integritatea babesteko erantzukizuna.
- 7. printzipioa.** Hizkuntza-aztertzaileak, beren eginkizun sozialen barnean, hizkuntzen azterketa-, ebaluazio- eta irakaskuntza-eginkizunen kalitatea hobetzen saiatuko dira, eginkizun horien bidezko esleipena sustatzen, eta gizartearen heziketari ekarpena egiten, hizkuntzak ikasteari eta menderatzeari dagokienez.
- 8. printzipioa.** Hizkuntza-aztertzaileak jakitun izango dira lan egiten duten gizartearekiko dituzten betebeharrak, eta kontuan hartuko dute batzuetan gatazka sor daitekeela betebeharrak horien eta azterketariekin eta beste alderdi interesdun batzuekin dituzten erantzukizunen artean.
- 9. printzipioa.** Hizkuntza-aztertzaileek aztertu egin behar dituzte aldi behin beren proiektuek epe laburrera zein luzera interesdun guztiengan izan ditzaketen ondorioak, eta eskubidea dute uko egiteko beren zerbitzu profesionali kontzientzia-arrazoengatik.

izandako lankidetzak, migrazioaren testuinguruarekin lotutako proiektu eta ikerketek dagokienez bereziki.

Azken bi hamarkadetan, gero eta Europako herrialde gehiagok sartu dituzte hizkuntza-baldintzak beren immigrazio- eta integrazio-politiketan. Gaur egun, Europako herrialde gehienek dituzte hizkuntza-baldintza formalak herritartasunari, bizilekuari eta/edo herrialdean sartzeari dagokienez, eta desberdintasun handiak daude herrialde batzuetatik besteetara.

Bi lantalde aritu dira lanean migrazioaren alorreko hizkuntza-politikari loturiko gai etikoen eta printzipio inspiratzaileen inguruan:

- LAMI Interes Bereziko Taldea (*Language Assessment for Migration and Interaction*, hau da, Hizkuntza Ebaluazioa Migrazioarako eta Integrazioarako taldea). ALTEk sortu zuen, 2002an. Taldearen helburua hizkuntza-aztertzaileentzat plataforma bat eratzea da, haien inpartzialtasun-ahaleginetan laguntzeko migrazioaren testuinguruan eginiko hizkuntza-probetan.
- LIAM proiektua (*Linguistic Integration of Adult Migrants*, hau da, Migratzaile Helduen Hizkuntza Integrazioa) Europako Kontseiluak jarri zuen martxan 2007an, migrazio-korronteen hizkuntza-erronkei aurre egiteko.

Europako Kontseiluarekin izandako lotura hori dela eta, gogo onez onartu zen *Language tests for access, integration and citizenship: An outline for policy makers* (2016) izeneko ALTE-LAMIren eskuliburua, hiru bertsiotan eskura daitekeena: [ingelesez](#), [suomieraz](#) eta [italieraz](#).

Kezka etikoak eta teknikoak kontuan hartzen dituen egoerataxosten bat da, eta horren helburua da nolabait ere bermatzea hizkuntza-azterketek ez dituztela migratzaileak diskriminatuko eta ez dituztela haien giza eskubideak urratuko. Orientazio praktikoa eskaintzen du, Europako Kontseiluko Parlamentu Batzarrak *Recommendation 2034* deritzon dokumentuan (2014) planteatzen dituen gogoetapuntu garrantzitsuenetako batzuei erantzunak emateko.

Berrikiago, Hezkuntza Politikako Dibisioak, ALTE-LAMI Interes Bereziko Taldearekin (SIG, *Special Interes Group*) elkarlanean, 2018ko inkesta antolatuta zuen migratzaileentzako hizkuntza-politika eta -eskakizunei buruz, Europako Kontseiluak Nazio Batuen 2030erako programari eginiko ekarpen gisa. Inkesta hori 2007an, 2009an eta 2013an talde zaugarrien inguruan eginiko inkesten jarraipena izan zen, hurrenez hurren aztergai izan zituztenak adingabeak, alfabetatze-maila apaleko migratzaileak eta errefuxiatuak. Bi xede nagusi zituen, lekukotasunetan oinarritutako politika-gomendioak formulatzeari begira:

- kide diren estatuaren gizartearen hizkuntza-eskakizunak eta ezagutzarenak mapeatzea migratzaileen bidaia-etapen arabera: hirugarren herrialdeetako nazionalak herrialdean

- sartu aurrekoa, haien egonaldia (aldi baterako edo iraunkorra) eta naturalizazioa;
- premia horiek 2007tik aurrera izan dituzten garapen-joerak aztertzea, gaiari buruzko aurreko inkestei jarraipena emateko, arreta berezia jarrita talde zaugarrietan (adingabeak, errefuxiatuak eta alfabetatze-maila apaleko migratzaileak).

2019ko urrian, Europako Kontseiluak eta ALTEk gobernu arteko konferentzia bat antolatu zuten elkarrekin, 2018ko inkestaren emaitzak aurkezteko. *Achieving Equal Opportunities for All Migrants Through Learning And Assessment: Language and knowledge of society requirements for migrants in Council of Europe member states* izenburupean, konferentziaren helburuak honako hauek izan ziren: Europako Kontseiluko estatu kideen migrazio-politiken joerak aztertzea, hizkuntza-eskakizunak gero eta gehiago erabiltzearen ondorioak jorratzea eta hartu beharreko neurri zehatzak proposatzea.

1.3 ALTEren jokabide-kodea

1994an, ALTEko kideek oinarritzat jo zuten jokabideen kode ofizial bat sortzea, garai hartako eta etorkizuneko kideek azterketetan betetzen saiatuko ziren estandarrak definitzeko, eta espero behar zutenaren deklarazio gisa balioko zuena azterketen kontsumitzaileentzat. Jokabide-kodea egin zen haren sarreran aipatzen diren helburu nagusiei begira: gaitasun-maila komunak finkatzeko, azterketek konparagarriak izan behar dute, bai kalitateari bai mailari dagokienez, eta, beraz, estandar komunak aplikatu behar dira haien ekoizpenean. Jokabide-kodeak estandar horiek finkatzen ditu, eta erantzukizunak zehazten ditu hizkuntza-azterketak prestatzen dituztenentzat eta haien erabiltzaileentzat.

ALTEren JOKABIDE-KODEA

Hizkuntza-azterketen hornitzaile gisa, ALTEko kideek jokabide-kode bat erabiltzen dute bete nahi dituzten estandarrak esplizitatu eta bete behar dituzten eginbeharrak aitortzeko. Jokabide-kode bat formulatu eta hari atxikitzean, bereizi egin behar dira hizkuntza-azterketetan estandarrak ezarri eta mantentzeko interesa duten rolak gainerako roletatik. Hauek dira: **azterketa-prestatzaileak, azterketa-erabiltzaileak** eta **azterketariak**.

Azterketa-prestatzaileak: azterketak prestatu eta kudeatzen dituzten pertsonak dira, bai eta proba partikularren programetarako politikak ezartzen dituztenak ere.

Azterketa-erabiltzaileak: azterketak hauta ditzakete, azterketak garatzeko zerbitzuak eska ditzakete, edo beste batzuen hezkuntza-aukerari eta karrerari eragiten dieten erabakiak har ditzakete, azterketen emaitzetan oinarrituta.

Azterketariak (edo hautagaiak): azterketak egiten dituzten pertsonak dira, beren borondatez edo azterketen erabiltzaileek eskatuta.

Jakina, azterketa-prestatzaileen eta erabiltzaileen funtzioak gainezarri egin daitezke, hala nola estatuko hezkuntza-erakunde batek azterketak garatzeko zerbitzuak eskatu, garapen-prozesua kontrolatzen duten politikak ezarri eta emaitzetan oinarritutako erabakiak hartzen dituenean. ALTEko kideen kezka nagusia azterketak garatea eta kudeatzea da. Alde horretatik, betebeharrak du azterketen erabiltzaileekiko eta, azken buruan, azterketariakiko. Azterketen erabiltzaileek hartzen dituzten erabakiek eragin zuzena dute azterketari edo hautagaiengan, eta, horregatik, jokabide-kode honek azterketa-erabiltzaileen betebeharrak ere kontuan hartzen ditu.

Azterketarien eskubideak babestuko dituztela hitzematzen dute ALTEko kideek, jokabide-kodeak lau arlotan dituen estandarrak betez:

- azterketen garapena
- azterketen emaitzen interpretazioa
- inpartzialtasunaren bilaketa
- azterketarientzako informazioa

Jokabide-kodea bi ataletan banatzen da. Lehenengo atalak, ALTEko kideen erantzukizunak ditu aztergai; bigarrenak, berriz, azterketen erabiltzaileenak.

1 ATALA – ALTEko KIDEEN ERANTZUKIZUNAK

Azterketen garapena

ALTEko kideek hitzematzen dute erabiltzaileei eta azterketariei behar duten informazioa emango dietela azterketa egokiak hauta ditzaten.

Praktikan, horrek esan nahi du ALTEko kideek honako hau bermatuko dutela beren azterketetan:

- Azterketa bakoitzak zer ebaluatzen duen eta zertarako erabili behar den definituko da.
- Zer populaziotarako den egokia adieraziko da.
- Neurketa-kontzeptu egokiak azalduko dira, behar den moduan, argi gera dadin aurreikusitako hartzaileentzat egokia izango den xehetasun-maila.
- Azterketaren garapen-prozesua deskribatuko da.
- Ebaluatu behar diren edukiak eta trebetasunak nola hautatu diren azalduko da.
- Azterketa-ariketen, instrukzioen, erantzun-orrien, eskuliburuen eta emaitza-txostenen lagin adierazgarriak edo kopia osoak emango zaizkie erabiltzaileei.
- Azterketa bakoitza azterketa egingo duen jatorri etniko edo linguistikoki jakin bateko taldearentzat egokia dela ziurtatzeko erabiltzen diren prozedurak deskribatuko dira.
- Azterketa bakoitza administratzeko behar diren baldintzak eta trebetasunak identifikatu eta argitaratuko dira.

Azterketen emaitzen interpretazioa

ALTEko kideek hitzematzen dute azterketen erabiltzaileei eta azterketariei lagundu egingo dietela emaitzak zuzen interpreta ditzaten.

Praktikan, horrek esan nahi du ALTEko kideek honako hau bermatuko dutela:

- Azterketen emaitzei buruzko txosten azkarrak eta ulerterrazak emango dira, hautagaien errendimendua eta profilak argi eta zehatz deskribatuko dituztenak.
- Azterketa gainditzeko notak edo kalifikazioak ezartzeko erabiltzen den modua azalduko da.
- Azterketa gainditzeko notarik ezartzen ez bada, informazio lagungarria emango da erabiltzaileei notak ezartzen lagunduko dieten arrazoizko prozedurak jarraitzeko, hori egitea egokia izanez gero.
- Erabiltzaileei ohartaraziko zaie saihestu egin behar dituztela azterketen emaitzen erabilera bidegabe espezifikoak eta arrazoiz aurreikus daitezkeenak.

Inpartzialtasunaren bilaketa

ALTEko kideek hitzematzen dute beren azterketak ahalik eta inpartzialenak izango direla jatorri desberdinetako hautagaientzat (generoa, adina, jatorri etnikoa, behar bereziak, etab.).

Praktikan, horrek esan nahi du ALTEko kideek honako hau bermatuko dutela:

- Azterketa-ariketak eta horiei loturiko materialak aztertuko dira, desegokiak izan daitezkeen edukiak edo hizkuntzak saihesteko.
- Prozedura batzuk erabiliko dira errendimendu-diferentziek zerikusia izan dezaten ebaluatutako gaitasunekin nagusiki eta ez garrantzi gabeko faktoreekin (hala nola generoa, adina edo jatorri etnikoa).
- Ahal denean, lojamendu- edo kudeaketa-prozedura egokiak eskainiko zaizkie behar bereziak dituzten hautagaiei.

Azterketarientzako informazioa

ALTEko kideek hitzematzen dute azterketen erabiltzaileei eta azterketariei ondoren aipatzen den informazioa emango dietela.

Praktikan, horrek esan nahi du ALTEko kideek honako hau bermatuko dutela:

- Informazioa emango zaie azterketen erabiltzaileei eta azterketariei, haiek erabaki dezaten azterketa jakin bat egin edo maila handiagoko edo txikiagoko azterketa bat hautatu.
- Informazioa emango zaie hautagaiei honako hauekin treba daitezen: azterketaren hedadura, ariketen formatu-motak, errubrikak eta beste jarraibide batzuk, bai eta azterketa egiteko estrategia egokiak ere.
- Ahaleginak egingo dira informazio hori hautagai guztien esku modu berean jartzeko.
- Informazioa emango da hautagaiek dituzten (edo ez dituzten) eskubideei buruz; hala nola azterketen kopiak eta erantzun-orriak beteta jasotzeko, azterketak berriro eskuratzeko, azterketak berriro puntuatzeko edo emaitzak berrikusteko.
- Informazioa emango zaie honako hauei buruz: azterketaren emaitza artxiboan zenbat denbora egongo den, emaitza noren esku eta zer baldintzatan utziko den (ala ez).

2. ATALA – AZTERKETA-ERABILTZAILAEN ERANTZUKIZUNAK

Azterketen erabiltzaileek azterketei buruzko informazioa jaso dezakete azterketak garatzen dituztenengandik, bai eta jokabide-kode bat ere, informazio horren erabilera egokiari buruzkoa. Azterketa-prestatzaileek bezalaxe, haiek ere betebeharrak dute hautagaiekiko, eta behartuta daude inpartzialtasunez jokatzera. Ondoko lerroetan erantzukizun horiek deskribatzen dira, lau arlotan: azterketa egokien hautaketa, azterketen emaitzen interpretazioa, inpartzialtasunaren bilaketa eta azterketarientzako informazioa.

Azterketa egokien hautaketa

Azterketa-erabiltzaileek hautatu egin beharko dituzte aurrez ezarritako helburua betetzen dituzten azterketak eta egokiak izango direnak aurreikusitako populazio hautagaientzat.

Azterketen emaitzen interpretazioa

Azterketa-erabiltzaileek ondo interpretatu behar dituzte puntuazioak.

Inpartzialtasunaren bilaketa

Azterketa-erabiltzaileek, azterketak hautatzean, kontuan izan behar dute ahalik eta inpartzialenak izan behar dutela jatorri desberdinetako hautagaientzat (generoa, jatorri etnikoa, behar bereziak, etab.).

Azterketarientzako informazioa

Azterketa-erabiltzaileak hautagaiekin harreman zuzena duenean, kontuan hartuko dute 1. ataleko *Azterketarientzako Informazioa* arloan ALTEko kideei ezarritako betebeharrak asko izango dituztela.

(1988an Washington DCko *Joint Committee on Testing Practices*ek onartutako *The Code of Fair Testing Practices in Education*ekiko zorra aitortzen da, Azken edizioa [hemen](#) eskuragarri).

2. Jokabide egokien printzipioak eta balidazioa hizkuntzen ebaluazioan

2.1 Jokabide egokia lortzea

Azterketek, pertsonen ez ezik, erakundeek eta gizarteari ere eragiten diete, lehen ikusi dugun moduan. 1994ko jokabide-kodean identifikatutako interesdunen hiru kategoria zabalek ez dute parte-hartzaileen multzo osoa ordezkatzen azterketa-prozesuetan. Azterketen eraginpean dauden pertsonen artean, azterketariak eta haien babesleak ditugu (ikasleak, gurasoak, irakasleak, enplegu-eskatzaileak, migratzaileak, enplegatutakoak, etab.). Horrez gainera, azterketak diseinatzeko, idazteko, kudeatzeko, kalifikatzeko eta balidatzeko prozesuan parte hartzen duten profesionalak eta akademikoak daude (hau da, irakasleak, artikulu-idazleak, aholkulariak, aztertzaileak, eskoletako jabeak, azterketa-zentroen administratzaileak, ikuskatzaileak, testu-liburuen idazleak, etab.). Eraginpeko erakundeak, berriz, eskolak, unibertsitateak eta kolegioak, gobernu-erakundeak, argitaletxeak, enpresak eta industriak izan daitezke. Gizabanakoek eta erakundeek onurak lortzen dituzte azterketek beren helburuak lortzen laguntzen dietenean, eta gizarteak ere onura jasotzen du, helburu horien lorpena guztion mesederako denean.

Azterketa-prozesuetan parte-hartzailetzat har daitezkeen interesdunen talde handian sartzen dira, halaber, azterketak ekoizten eta kudeatzen laguntzen dutenak eta azterketen emaitzak eta ziurtagiriak erabiltzen dituztenak. ALTEko kideek talde horren iritzia eta jarrerak aztertzeko prest egon behar dute, bai eta beren lana berrikusteko edo aldatzeko prest ere, aintzat hartuta, betiere, interesdun horiek azterketak nola erabiltzen dituzten eta horiei buruz zer pentsatzen duten.

Azterketa-prozesuetan interesdun horien guztien parte-hartze egokia printzipio garrantzitsu bat da jokabide egoki bat lortzeko, zeina, aldi berean, oinarritzko bi printzipio hauen menpe egongo baita:

- a) azterketak prestatzeari, kudeatzeari eta balidatzeari lotutako baliabideen plangintza eta kudeaketa arrazionalak egitea;
- b) azterketa-prozesuaren alderdi guztiei buruzko datu/informazioa biltzea, biltegitratzea eta erabiltzea.

Datu egokiak ez lortzeak hauxe esan nahi du: estandarrak lortzeari eta mantentzeari buruzko ebidentziak ezin direla eman (esate baterako, baliotasunari, fidagarritasunari, eraginari eta praktikotasunari buruz).

Azterketa-prozesuaren alderdi guztiak kudeatzeko prozedura egokiak aplikatzen badira bakarrik lor daitezke jokabide egokiak eta, beraz, kalitate handiko azterketak, hizkuntza-gaitasunaren ebaluazioari buruzko formatu eta ikuspegi

berriak kontuan hartuta. Hortaz, ikuspegi arrazional bat hartu behar da [ziklo iteratiboaren nozioa barne hartuko duena], azterketaren garapen, kudeaketa eta balidazioa arte. Ikuspegi honen lehen etapak plangintza hartu behar du kontuan, egoeraren analisi xehe bat barne hartuta (hau da, bideragarritasun-azterketa bat), non aztertuko baita beste proba bat hezkuntza-testuinguru jakin batean egiteko hautemandako beharra eta hura egiteko modurik eraginkorrena. Helburua da azterketa-proiektuaren garapenerako egokiak izango diren eta azterketaren erabilgarritasuna nola lortuko den zehaztuko duten gogoetak eta mugak zehaztea.

Beste azterketa bat egitea erabakitzen den aldiro, adostutako prozedurak eduki behar dira, eta horietan gutxienez arlo hauek landuko dira:

- garapen-proiektua kudeatzeko egitura;
- eginkizunen eta erantzukizunen esleipen argia eta integratua;
- aurrerabideak zaintzeko bitarteko bat, garapen-egutegiak eta baliabideei dagokienez;

azterketen ekoizpen-prozesua kudeatzeko metodologia bat, azterketa egiteko prozesua abiatzen denean (hau da, itemen idazketa, aukeraketa, moderazioa, aurretiko proba, itemen bankua, galderen prestaketa).

Behin azterketa abiarazi denean, materialen ekoizpenari eta probaren kudeaketari buruzko informazioa bildu behar da, prozedurek alderdi praktikoei lotutako itxaropenak betetzen ote dituzten jakiteko –hala nola kostua eta eraginkortasuna–. Hasierako planifikazioaren ondorengo prozesu ziklikoek azterketaren beraren garapenaren eta haren ondoren zuzenean azterketariak egiten duen azterketaren etengabeko zaintza inplikatzeko dute. Beharrezkoa da erregistro xehe bat egitea eta datuak biltzea, jarduera guztien jarraipena egiteko. Jarraipen-teknikek azterketaren historia dokumentatu bat egiteko behar diren era guztietako erregistroak izaten dituzte, eta horiek baliagarriak dira, era berean, ebaluazio formatiboa eta sumatiboa egiteko. Jasotako datuak bi eratakoak izan daitezke: “datu gogorak” (enpirikoki jasotako gertaerak eta zifrak) edo “datu bigunak” (sentimenduak, inpresioak, jarrerak, etab.).

Ikuspegi horren oinarritzko alderdietako bat da balidazioa prozesuaren parte integral bat dela. Hori gertatzeko, azterketaren ekoizpenean eta kudeaketan etengabe aplikatuko diren prozedurak diseinatu behar dira, beharrezko arabera datu egokiak biltzeko, biltegitratzeko eta berreskuratzeko aukera eman dezaten.

Printzipio gisa, azterketa baten erabilgarritasun orokorra maximizatu beharko da, feedback zehatza eta esanguratsua lortze aldera. Horrek esan nahi du azterketa baten alderdi bati lotuta jasotako ebidentziek esanguratsua izan behar dutela, halaber, gainerako alderdientzat. Esate baterako, azterketaren fidagarritasunari buruz jasotako datuak ez dira fidagarritasuna aztertzeko bakarrik erabiliko; aitzitik, baliotasuna, inpartzialtasuna eta eragina aztertzeko ere erabiliko dira (hurrengo atalean definitzen den moduan). Horrek guztiak argudio sendoetan oinarritutako balidazio bat ematen du, dena delako azterketaren kalitatea bermatzeko.

2.2 Erabilgarritasunaren kontzeptua azterketetan

Hemen proposatutako jokabide egokien printzipioen bidez bermatu nahi da, hain zuzen, froga daitekeela ALTEko kideek eskaintako azterketek irizpide esplizituak betetzen dituztela azterketa-zerbitzuen ezaugarri hauei dagokienez:

- edukiaren baliotasuna
- konstruktuaen baliotasuna
- fidagarritasuna
- irizpideei lotutako ebidentzia
- inpartzialtasuna
- zerbitzuaren kalitatea
- praktikotasuna
- eragina

Ezaugarri horiek presente egon behar dute azterketaren ariketen prestaketa eta ezarpen osoan eta errendimenduaren behaketan, bai eta aztertzailarekin eta beste erabiltzaile batzuekin, interesdunekin eta, orobat, gizarte osoarekin sortutako feedbackean ere. Ezaugarri horien erabilgarritasuna argudioetan oinarritutako balidazioaren bidez frogatuko da.

Azterketa-zerbitzuen alderdi horiek printzipioak oinarri hartuta lantzean, ALTEko kideek ziurtatzen dute beren konpromisoak betetzen direla eta estandar nahikoa altuak mantendu daitezkeela.

Ez da harrizkoa hizkuntzen neurketari eta azterketei buruzko literaturan luze eta zabal eztabaidatu izana edukiaren, konstruktuaen eta irizpideei lotutako balioen gainean, baita fidagarritasunaren gainean ere. Adibidez, *The AERA/APA/NCME Standards* lanak (hala 1999ko argitalpenak nola 2014koak) eztabaida zabalak eskaintzen ditu, eta Bachman-ek (1991) kapitulu bana eskaintzen die ezaugarri horiei. Gainerako ezaugarriak, berriz, kontuan hartu beharreko gogoetagai garrantzitsuak izan dira beti azterketak prestatzeko arduradunentzat, nahiz eta orain dela gutxi agertu diren hizkuntza-probeei buruzko bibliografian. Gaur egun gehiengo batek onartzen du azterketaren ezaugarri indibidualak ezin direla ebaluatu modu independentean eta horien garrantzi erlatiboa zehaztu behar dela, azterketaren erabilgarritasun orokorra maximizatze aldera (ikus, esate baterako, Bachman eta Palmer 1996).



3. irudia: Jokabide egokien argudioetan oinarritutako baliotasunaren alderdiak hizkuntzen azterketan

Azterketaren erabilgarritasun-kontzeptuak ezaugarri horien arteko oreka egoki bat ezartzea eskatzen du, edozein ebaluazio-egoeratarako. ALTEko kideek beren azterketen erabilerari lotutako alderdi guztien erantzuleak izan behar dutela onartzen da; horrek esan nahi du azterketen erabiltzaileei kalitate handiko zerbitzu bat eman behar dietela, dokumentu honetan azaldutako jokabide egokien printzipioak beteko dituen.

Azterketa guztiak testuinguru bakoitzerako espezifikoa dira; izan ere, hizkuntza eta testuinguru anitzeko ikaslearen beharrak asetzen dituzte, eta horrek esan nahi du, hain zuzen, kontuan hartu behar direla azterketen garapenera eta kudeaketari buruzko gogoeta eta muga praktikoak, azterketen ezaugarrien arteko oreka egokia edozein egoeratan lor dadin (esate baterako, hezkuntza-testuingurua, azterketarien taldea eta azterketaren helburua). Ezaugarrien garrantzi erlatiboa zehaztu behar da, azterketaren erabilgarritasun orokorra maximizatze aldera. Edonola ere, ezin dira azterketa egokiak egin, ezaugarri guztiei behar bezalako arreta eskaini ezean.

Azterketa bat zein testuingurutan garatuko eta erabiliko den aintzat hartzean, egoera hori karakterizatzen duten kontsiderazio eta muga espezifikoa hartu behar dira kontuan. Ez dira berdinak izango ALTE azterketa guztientzat, eta azterketa bat egingarria den eta eskura dauden baliabideekin ekoitzi eta administratu daitezkeen zehaztuko dute. Baliabideei dagokienez, hori ALTE erakundeen barruan dauden baliabideei aplikatzen zaie, bai eta azterketak kudeatzen diren testuinguruetan dauden baliabideei ere. Zehazki, garapen- nahiz administrazio-kostuak kontrolatu eta kudeatu behar dira.

2.3 Azterketaren ezaugarriak

Hirugarren irudian ikusten den moduan, ALTEko kideek jokabide egokia bermatu behar dute beren azterketa-zerbitzuen ezaugarri hauetan: edukiaren baliotasuna, konstruktuen baliotasuna, fidagarritasuna, irizpideei lotutako ebidentzia, inpartzialtasuna, zerbitzuaren kalitatea, bideragarritasuna, eta eragina. Era berean, haien ebidentzia erakusteko prestatuta egon behar dute, publikoari proba erabilgarri bat emateko.

2.3.1 Edukiaren baliotasuna

Baliotasunak, orobat, erreferentzia egiten die hezkuntza-testuinguru espezifiko batean egindako azterketa baten egokitasunari eta esanahiari eta azterketaren emaitzetatik egindako inferentzia espezifikoiei. Hizkuntzaren ebaluazioan, baliotasunak, eskuarki, honako hau adierazten du: zer neurritan froga daitekeen azterketa baten emaitzek hautagai baten hizkuntza-gaitasunaren benetako maila islatzen dutela. Baliotasuna kontzeptu unitariorat har badaiteke ere (ikus Messick, 1989 eta American Educational Research Association, American Psychological Association and National Council on Measurement in Education, 2014, 14. or.), garrantzitsua da esatea baliotasunari buruzko baieztapenek, probari berari buruzkoak baino gehiago, proben puntuazioen interpretazio zehatzei buruzkoak izan behar dutela, proposatutako erabilerak aintzat hartuta: hasiera batean probaren erabilerak izan behar du balioduna. *Standards* lanaren 2014ko argitalpenean, baliotasun motei buruz baino gehiago, baliotasun-ebidentzien motei buruz hitz egiteko beharra nabarmentzen da:

Baliotasunari buruzko baieztapenek interpretazio partikularrei eta erabilera kontsekuenteei egin behar diete erreferentzia. Okerra da "probaren balioa" esaldi ez-kualifikatua erabiltzea. Proba bakar batek ez du ahalbidetzen interpretazio guztiak baliodunak izatea asmo guztietarako edo egoera guztietan. Erabilera jakin baterako gomendatutako interpretazio bakoitzak balidazioa eskatzen du. Probaren prestatzaileak hizkuntza argi batez zehaztu behar du proba zer biztanleriarentzat den, zer konstruktuei neurtu nahi den, zer testuingurutan erabiliko diren probaren puntuazioak, eta proba zer prozesuren bidez jarri eta puntuatuko den. Baliotasunaren arau orokorra, beraz, probaren puntuazioan aurreikusitako interpretazio bakoitzerako artikulazio argia da, erabilera espezifiko baterako, eta ebidentzia egokiak ematen ditu, aurreikusitako interpretazio bakoitzari laguntzeko.

(American Educational Research Association, American Psychological Association and National Council on Measurement in Education, 2014, 23. or.)

Edukiari lotutako ebidentziak honako hau adierazten du: **azterketa batek zein neurritan biltzen duen ezagutzen eta gaitasunen multzoa egokia eta erabilgarria den mundu errealearen egoerarako eta hizkuntzaren benetako erabilerarako.** Hori garrantzitsua da; izan ere, hizkuntza eta testuinguru anitzeko hizkuntza-ikasle batek bizitza errealean topatzen edo topatuko dituen zereginak nola betetzen dituen ebaluatu behar dute probaren ariketek.

Edukiaren balidazioak ikertzen du, hain zuzen, azterketa baten elementuen, ariketen edo galderen laginak zer mailatan ordezkatzan duen eduki baten domeinu mugatu bat. Egokitasunaz eta hedaduraz arduratzen da.

Laginaren ordezkagarritasuna egiaztatzeko metodo ugari daude; domeinuaren ezaugarri nagusiak eredu baten bidez zehaztu daitezke (esate baterako, oinarritzko mailaren (*Waystage*) eta atalasearen (*Threshold*) espezifikotasunak), eta gaietan adituak diren pertsonen eska diezaiekegu ezaugarri horien bidez definitutako kategoriei azterketa-itemak esleitzeko; horrela, edukiaren ordezkagarritasuna baloratu ahal izango dugu.

Azterketa batean ordezkatu nahi den eduki-domeinua zehaztea oso garrantzitsua da; azterketa baten elementuen edo ariketen formatuak jakintza zer mailatan ordezkatzan duen jakitea ezinbestekoa da; eta, interesdunen taldeen eta aditu egokien parte-hartzea oinarritzko elementu bat da, azterketa bat prestatzeko prozesuan. Askotan, "mundu errealeko" portaeraren behaketa sistematikoak erabil daitezke, irizpideko egoeraren ezaugarri edo tasun bereizgarriak identifikatzeko (ikus *Target Language Use - TLU - domain*, Bachman eta Palmer, 1996, 44-45. or.). Behaketa horiek adituen iritziekin konbina daitezke, eduki-domeinu horren lagin adierazgarri bat eraikitzeko. Probaren edukiaren eta ariketen egitasunaren gaineko kezka eta "inputaren" eta erantzunaren edo espero den "outputaren" arteko harremana edukiaren balidazioaren ezaugarri garrantzitsuak dira. Azterketetako ariketen eta materialen egitasuna, probaren erabiltzaileen eta azterketarien dibertsitate handia kontuan hartuta, aukeratutako ebaluazio-ikuspegiaren puntu garrantzitsutzat har daiteke. Azterketaren edukia diseinatu behar da azterketariak sarrera horri erantzuteko moduaren bidez azpian diren gaitasunen (hau da konstruktuen) nahikoa frogak eman ditzan. Probaren inputei (ariketak, elementuak, etab.) emandako erantzunak azterketariaren eta probaren edukiaren arteko interakzioaren emaitza dira. Probaren edukiaren egitasuna eta hautagaiak eduki horrekin izandako interakzioaren egitasuna kontsiderazio garrantzitsuak dira azterketa garatzeaz arduratzen denak baliotasun-maila altua lor dezan. (Ikus Widdowson 1978, 1983, egoeraren eta interakzioaren egitasunari buruz, eta Bachman eta Palmer, 1996, kontzeptu horiek hizkuntza-probei aplikatzeari buruz). Hori dela eta, garrantzitsua da ebaluazioaren erdigunean hizkuntza eta kultura anitzeko hizkuntza-ikaslea kokatzea, eta edukiaren baliotasun-argudio bat eraikitzea, hizkuntza-ikasleak bere komunikazio-gaitasuna erakutsi behar duen egoeretan eta testuinguruetan.

Laburbilduta, edukien balidazioa azterketaren eraikuntzari lotuta dago, bai eta baliotasun-ebidentziak ezartzeari ere, azterketa, behin garapen-fasea igaro ondoren, "bizirik" dagoela kontsideratzen denean.

2.3.2 Konstruktuen baliotasuna

Konstruktuari lotutako ebidentziak honako hau adierazten du: **probaren emaitzak zer neurritan egokitzen diren probaren azpian dagoen komunikazio-hizkuntzaren gaitasun-eredura.**

Konstruktuen balidazioan, ikuspegia, funtsean, ezaugarri edo "konstruktue" baten neurri gisa hartutako azterketaren

puntuazioan edo kalifikazioan oinarritzen da. Azterketaren garatzailerak trebetasun-ezaugarriak definitzen ditu, horiek neurtzeko asmoz, eta definizio horiek dira, hain zuzen, konstruktua. Komunikazio-hizkuntzaren gaitasun-eredu batek konstruktua bat adierazten du, hizkuntza-proben testuinguruan (ikus Bachman 1991, Canale 1983, Canale eta Swain 1980). Probak hizkuntza-ikaslearen gizarte-esparruan eta gaitasun kognitiboetan zentratzen direnez, Weir-ek (2005) esparru soziokognitiboa garatu zuen, zeina baliagarria baita konstruktuari baliotasuna emateko. Horrela, gaur egun, hizkuntzen ebaluazioak aintzat hartzen ditu hizkuntza eta testuinguru anitzeko hizkuntza-ikasleak.

Azterketaren baliotasunerako konstruktuari lotutako ebidentziak konpilatatzeko prozesua azterketaren garapenean hasten da; azterketak "bizitza hartzen" duenean jarraitzen du; eta eragiketa-baldintzetan erabiltzen da.

Konstruktua baten gaineko inferentzien balidazioak eskatzen du neurketaren alderdi askori kontu handiz erreparatzea, esate baterako, azterketaren formatuari, administrazio-baldintzei eta gaitasun-mailari, eta alderdi horiek eragina izan dezakete azterketaren esanahian eta interpretazioan.

Konstruktua baliotasuna "kontzeptu bateratzaile" gisa ikusten dute askok proben balidazioan, eta edukari eta irizpideei lotutako kontsiderazioak biltzen dituzte (Messick 1989). Prozesu gisa, konstruktua baliadazioak iturri askotako frogak bilatzen ditu, konstruktua baliadazioari buruzko informazioa emateko. Konstruktua baliadazioa egiteko frogak biltzeko erabiliko den ikuspegia aukeratzeko, balidazio-arazo zehatza eta ikerketan konstruktua jakin batzuek duten garrantzia aintzat hartuta. Bibliografian estatistika-teknika ugari erabili dira, korrelazioetan oinarritzen direnak neurri handi batean, eta sarritan datuak biltzeko diseinu esperimentalak erabiltzen dituztenak.

2.3.3 Fidagarritasuna

Fidagarritasuna funtsezko kontzeptu bat da edozein neurketa-modutan, eta baliotasun orokorrari laguntzen dio.

Hizkuntzaren ebaluazioan, fidagarritasunak honako hau adierazten du: **proben emaitzak eta feedbacka zer neurritan diren zehatzak, egonkorak, koherenteak eta neurketa-akatsik gabekoak**. Bestela esanda, horrexek adierazten du zer mailatan egon gaitezkeen azterketen noten menpe hautagaiari buruzko erabakiak hartzeko. Fidagarritasun-estimazioetan, akatsen jatorri egokiak ez ezik, erabaki motak ere kontuan hartu behar dira, zeinak, ziur asko, azterketen notetan oinarritzen baitira.

Askotariko arrazoiak direla eta, pertsonen emaitza desberdinak lor ditzakete paraleloak izateko xedearekin eginiko bi azterketa-formatan; desberdintasun horiek azaldu ezin direnean, **neurketa-akatsak** daudela esaten da. Neurketa-akatsak neurketa bakar batetik abiatuta pertsona batek lortutako noten fidagarritasuna (eta, beraz, orokortasuna) murrizten dute.

Fidagarritasuna orokorki estimatzen da, eta **fidagarritasun-koefizienteekin** loturiko terminoetan jakinarazten da. Termino generiko bat denez, transmititzen duen akatsari buruzko informazioa aldatu egiten da erabilitako estimazio-metodo

espezifikoaren arabera, eta, akatsen jatorri guztiak azterketa guztietarako egokiak izango ez direnez, azterketa garatzearen arduradunari dagokio akatsaren bariazioa komunikatzeko modu egokiak erabakitzea. Horrek ekar dezake jakinarazi behar izatea, besteak beste, neurketa-akats estandarrek, konfiantza-tarteak, fidagarritasun-indizeak, etab.

Hizkuntza-probei dagokienez, haien fidagarritasunari buruzko bibliografia gehiena, oro har, hezkuntza- eta psikologia-probetan egindako lanean oinarritu da, eta horren erakusle dugu *AERA, APA and NCM Eren Standards* (1954-1985). *Standards* lanaren 1999ko bildumaren fidagarritasunari eta neurketa-akatsen buruzko kapituluak (1. zatia, 2. atala), hiru fidagarritasun-kategoria zabal identifikatu ziren, tradizioz onartu izan direnak:

- a) forma alternatiboko koefizienteak (forma paraleloen kudeaketatik eratorritakoak, saio independenteetan);
- b) test-retest koefizienteak;
- c) nahikoa arrunta izaten da barne-sendotasuneko koefizienteen erabilera, hala nola Cronbach-en alfa eta KR20, proba objektiboen fidagarritasuna estimatzeko (esate baterako, aukera anitzeko irakurketa- edo entzumen-probetarako). Koefiziente horiek nahikoa erraz kalkulatu direnez, beste batzuk, egokiagoak beharbada, gutxiago erabiltzen dira (esate baterako, test-retest estimazioak gutxiago egiten dira, zaila delako datu egokiak lortzea eragiketa-baldintzetan).

Standards lanaren azken argitalpenean (2014) emandako fidagarritasun/zehaztasun estandar orokorrak azpimarratzen duenez, fidagarritasuna/zehaztasuna frogatzeko formek (hala nola, fidagarritasun- edo orokortze-koefizienteak, itemei erantzuteko teoria (IRT, *item response theory*), baldintzapeko akats estandarra, eta erabakien koherentzia-indizeak) egokiak izan behar dute puntuazioen erabilerearako, biztanleria inplikaturako eta puntuazioak eratoritzeko erabilitako eredu psikometrikotarako (American Educational Research Association, American Psychological Association and National Council on Measurement in Education, 2014, 42. or.).

Mintzamena eta idazmena neurtzeko probei dagokienez, *Standards* lanean argi geratzen da proba baten kalifikazioan aztertzailerak edo kalifikatzaileak iritzia behar denean garrantzitsua dela fidagarritasuna kontuan hartzea, egindako kalifikazioen zehaztasunari eta koherentziari dagokienez. ALTEko kideek eskainitako azterketa askotan, mintzamena eta idazmena neurtzeko probak kategoriatan horren barruan sartzen dira, ebaluazioak aztertzailerak egiten dituztelako.

Ebaluazio subjektiboen (aztertzailerak bidezkoa) fidagarritasuna korrelazioen bidez estimatu ohi da; esate baterako, *intra* eta *inter*-erako kalifikazio-korrelazioak.

Aurreikusitako puntuazio-erabilera bakoitzaren interpretaziorako fidagarritasun-frogak ematean, jokabide egokiak gutxienez honako hauek izan beharko lituzke:

- a) Benetako ahaleginak neurketa-akatsen iturri nagusiak identifikatzeko eta zenbatzeko, barne hartuta:
 - nota pareen artean espero den fidagarritasun-maila (esate baterako, hautagai batek zailtasun baliokidea duten bi ariketetan lortutako notak);

- emaitzak orokortzea ariketen eta itemen bidez, azterketa beraren forma desberdinen bidez, aztertzaileen bidez, kudeaketa desberdinen bidez, etab.
- b) Azterketen notak –azpipuntuazioak eta noten konbinazioak barne hartuta– aurreikusitako erabilerarako nahikoa fidagarriak direla bermatzea.
- c) Fidagarritasunari, neurketa-akats estandarrei edo antzekoei buruzko informazioa ematea; hartara, azterketen erabiltzaileek azterketaren notak aurreikusitako erabilerarako nahikoa fidagarriak diren baloratu ahal izango dute.
- d) Azterketen erabiltzaileei informazioa ematea, aldaketa-iturri buruz eta puntuazioen interpretaziorako esanguratsu gisa hartzen diren beste akats-iturri batzuei buruz.
- e) Azterketa-noten fidagarritasun edo sendotasunaren estimazioak, azterketa-noten izaerarako eta erabilerarako egokiak diren metodoen bidez jakinarazi direnak eta kontuan hartuko dituztenak noten interpretaziorako esanguratsutzat hartutako aldaketa-iturriak.
- f) Fidagarritasun-analisiaren dokumentazioa, barne hartuta:
- azterketa-noten koherentzia edo fidagarritasuna ebaluatzeko erabilitako metodoen deskribapena eta horien erabileraren justifikazioa, fidagarritasun-analisan zenbatutako aldaketa-iturri nagusiak, eta erabilitako formula eta/edo erreferentzia egokiak;
 - fidagarritasun-koefiziente bat, neurketa-akats orokor bat, sailkapenaren sendotasun-indize bat, edo azterketa-noten sendotasunari buruzko bestelako informazio baliokidea;
 - neurketa-akats estandarrek edo noten bestelako sendotasun-neurketak noten multzo batzuetarako, non pertsonen buruzko erabakiak hartzen baitira azterketaren noten arabera;
 - nota independenteen arteko bat etortze maila, iritzi bidezko prozedurak erabiltzen direnean;
 - korrelazioak, azterketa beraren barruan emandako azpipuntuazioen artean edo azterketa-multzo baten noten artean.
- g) Fidagarritasun-estimazioak zer baldintzatan lortu diren deskribatzea, honako hauek barne hartuta:
- inplikaturako biztanleriaren deskribapena, esate baterako, informazio demografikoa, hezkuntza-maila, lan-egoera;
 - analisi-lagina aukeratzeko prozeduraren eta haren egokitasunaren deskribapena, eta horren barruan sartzen dira behaketen kopurua eta neurketa eta desbideraketa estandarrek nola analisi-laginenak, hala fidagarritasuna finkatua duen edozein talderenak;
 - kalifikazioak iritziaren oinarritzen direnean, kalifikazioaren oinarria, kalifikatzaileen aukeraketa eta prestakuntza barne hartuta, eta azterketak aztertzailei esleitzeko eta desadostasunak konpontzeko prozedurak;

- azterketen arteko denbora-tarteak, denbora-tartearen justifikazioa, eta azterketak administratzeko ordena, baldin eta forma alternatiboko metodoak eta tes-retest metodoak erabili badira.

2.3.4 Irizpideei lotutako ebidentzia

Irizpideei lotutako ebidentziak (baliotasun prediktiboa eta konkurrentea) honako hau adierazten du: **proben puntuazioak zer neurritan erlazionatzen diren jakintza-arlo edo trebetasun berbera neurtzen duen eta onartuta dagoen kanpo-irizpide batekin** (esate baterako, EEMBren antzeko mailen sistema bati erreferentzia eginez).

Irizpideei lotutako balidazioaren helburua da erakustea proben puntuazioak edo azterketen notak sistematikoki erlazionatuta daudela kanpo-irizpide batekin edo batzuekin (esate baterako, aztertzen den gaitasunaren beste adierazle batekin). Beraz, irizpideak du interes nagusia. Irizpide hori era askotan defini daiteke; esate baterako, talde jakin batekoa izateagatik, gaitasun bereko beste azterketa bat egiteko erabili izanagatik, edo gaitasun bera inplikatzan duten mundu errealeko zeregin bat egiten arrakasta izateagatik.

ALTE sortu zenean, ez zegoen nazioartean onartutako esparrurik, eta hizkuntza-egiaztatze gintza aldakorra zen, egiaztatutako hizkuntza-mailei zegokienez. Ostera, azterketak prestatzeko arduradunak eta beste erabiltzaile batzuk konturatzen hasi ziren ordurako mekanismo bat behar zutela mailak eta haien esanahiak ulertzeko, eta jakiteko nola erlazionatzen ziren hainbat hizkuntzatarako azterketak elkarren artean bai edukitari dagokionez eta bai mailari dagokionez ere.

Testuinguru horretan sortu zen ALTE eta haren helburuak finkatu ziren; kolaborazioaren lehen urratsetan, berriz, kideen azterketak deskribatu ziren, eta emaitzak gaitasun bateratuko eskala baten laukian jarri zituzten.

Hainbat hizkuntzatarako azterketen arteko konparazio sistematikoak egin ziren, eta esparruaren mailetan aztertzen ziren, hainbat hizkuntzatarara itzuli ziren galdetegiak edukia egiaztatzeko zerrendak erabiliz. Laukiaren balidazioa esperimintazio-lan baten bidez egin zuten, *The Critical Levels Project* ("maila kritikoen proiektua") deritzonaren testuinguruan, eta hortik *Can do* ("gai da") proiektuaren adierazpenak sortu ziren, eta EEMBren garapenerako bidea erraztu zen.

Europako Kontseiluaren Rüşchlikon-go bigarren konferentzia, 1991ko azaroan egin zena, ALTEren lehenengo gertaerei oso lotuta egon zen. Rüşchlikon-en hizkuntzen irakaskuntza, ikaskuntza eta ebaluaziorako EEMB bultzatu zen. 90eko hamarkadan lan asko egin ziren, eta horietako asko ALTEn egiten ari ziren aurrerapenen garai berean; dena dela, ALTEk garai hartan ebaluazioaren arloa landu zuen gehienbat, eta ez hainbeste hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza. Nolanahi ere, *Can do* proiektura orientatutako mailen sistema bat sortzeko hartutako ikuspegia, Rasch-en analisia erabiliz aztertutako adierazpenetan oinarritutakoa, oso antzekoa izan zen; halere, ALTEren ikuspegiak *Can do* proiektuaren adierazpenak lotu zituen ere azterketen errendimenduari, hainbat hizkuntzatan.

Hortaz, ALTEren jatorrizko esparrua EEMBren esparruaren osagarria zen. ALTE Esparrua EEMB lantzeko tresna bihurtu zen, azterketak egiteari begira.

1. taula: ALTE mailak eta dagozkien EEMB mailak

ALTE maila	EEMB maila
5. maila (Erabiltzaile ona – <i>Good-</i> , gero aditua – <i>Mastery-</i>)	C2
4. maila (Erabiltzaile gaitua – <i>Competent-</i> , gero trebea – <i>Proficient-</i>)	C1
3. maila (Erabiltzaile independentea – <i>Independent-</i> , gero aurreratua – <i>Vantage-</i>)	B2
2. maila (Atalasea – <i>Threshold-</i>)	B1
1. maila (Oinarrizko maila – <i>Waystage-</i>)	A2
Hasierako maila (<i>Breakthrough</i>)	A1

Literaturan, irizpideei lotutako bi ebidentzia mota espezifiko daude: konkurrentea eta prediktiboa.

Baliotasun konkurrentea duten frogak ematea haxe litzateke: azterketen datuak erabiltzeko zehaztasunari buruzko informazioa eskuratzea, irizpideei lotutako portaera estimatzeko edo aurreikusteko. Informazio ohikoena aldi berean egindako hainbat neurketaren arteko erlazioetan oinarritzen da (esate baterako, gaitasun beraren bi proba desberdinen emaitzen arteko erlazioa erakusteko). Errendimendu-proben kasuan, konparazio kualitatiboak egin daitezke irizpide-arauen eta probaren emaitzaren laginen artean (esate baterako, idazmenean eta mintzamenen).

Baliotasun prediktiboa agerian uzteak antzeko asmo bati erantzuten dio, baina etorkizunari lotutako informazio prediktiboa eskuratzen da, hala nola etorkizuneko azterketen emaitzak, goi-mailako hezkuntzaren errendimendua edo etorkizuneko lan baten zeregina. Baliotasun mota horren ebidentzia bereziki garrantzitsua da azterketen edo proben emaitzak erabiltzen direnean aukeraketak edo sailkapenak egiteko.

2.3.5 Inpartzialtasuna

Inpartzialtasuna oinarrizko hirugarren kontsiderazioa da, baliotasun eta fidagarritasunarekin batera, *AERA, APA and NCME Standards* 2014ko argitalpenean. Aurreko bertsioetan, desgaitasunak dituzten azterketarien eta hizkuntza nahiz kultura askotako azterketarien ebaluazioari lotutako hainbat kapitulutan agertzen zen inpartzialtasuna. 2014ko argitalpenean, gai horiek aparteko kapitulu batean aurkezten dira (3. kapitulua), eta bertan, 20 arau ematen dira, non inpartzialtasuna azpimarratzen baita proben emaitzen interpretazioaren balioan eragina izan dezakeen kezka nagusi gisa. Arau horiek inpartzialtasunaren hainbat alderdi deskribatzen dituzte, hala nola probaren prozesuan parte hartzen duten guztientzako tratu zuzena eta bidezkoa,

alborapenik gabeko neurketa, neurtutako konstruktua eskuratzeko aukera, eta inpartzialtasuna, probaren puntuazioaren banakako interpretazioaren balio gisa aurreikusitako erabilerarako. Kapituluaren printzipio gidari gisa aurkeztutako inpartzialtasunaren arau orokorrak honako hau eskatzen du: proba-prozesuaren pausu guztiak (proben diseinua, balidazioa, garapena, kudeaketa eta puntuazio-prozedurak) konstruktuen aldaketa hutsala minimizatzeko eta puntuazioaren interpretazio baliodunak bultzatzeko diseina daitezen, biztanleriaren azterketari guztientzat aurreikusitako erabileretarako (*AERA, APA and NCME Standards*, 2014, 63. or.). Azterketariak beren gaitasuna erakusteko erronkei aurre egin behar diete, eta erronka horien jatorrian egon daitezke, besteak beste, haien desgaitasuna, kultura-, hizkuntza- edo hezkuntza-aurrekariak, egoera sozioekonomikoa, adina, edo faktore horien guztien konbinaketa bat. Normalizazioak oinarritzeko izaten jarraitzen du azterketari guztiak azterketak neurtutako konstruktuari aurre egiteko aukera berdinak dituztela ziurtatzeko; batzuetan, beharrezkoa da malgutasuna izatea proban parte hartzen duten pertsonen aukera berdinak eskaini ahal izateko. Esate baterako, Braillean idatzitako probaren inprimaki bat, pantaila-irakurgailu bat edo letra-tamaina handiko azterketa-paper bat bana daiteke, ikusmen-arazoak dituzten azterketariak probaren edukia aukera-berdintasunez eskuratu dezaten. Dena dela, probaren egokitzapen oro arretaz aztertu behar da, aurreikusitako konstruktua ez oztopatzeko. Bidezko proba batek ez luke izan beharko abantaila edo desabantaila bat azterketari batzuentzat, konstruktuen ezaugarri hutsal baten eraginez. Bidezko proba batek konstruktua berbera eskaintzen die azterketari guztiei, eta haren puntuazioak esanahi bera du biztanleria-hartzailea osatzen duten guztientzat.

Probetan inpartzialtasun-alderdiak ezartzeko jokabide egokiek aintzat hartu behar dute aniztasuna, bai probak egiten dituzten pertsonena, bai erabiltzaileena, bai esku hartzen duten proba-formatu guztiena. Jokabide egokiek barne hartuko dituzte ere honako hauek:

- proban parte hartzen duten guztientzako bidezko tratua ziurtatzea probaren prozesuan;
- neurtutako konstruktua eskuratzeko aukera bidezkoa izatea;
- neurketa-alborapena monitorizatzea eta minimizatzea;
- puntuazioaren interpretazioaren balioa ziurtatzea, banaka egokitutako proben erabilerarako.

2.3.6 Zerbitzuaren kalitatea

Zerbitzuaren kalitateari dagokionez, **azterketaren garatzaileak azterketariekin eta erabiltzaileekin hartutako konpromiso espezifikoak betetzeko duen gaitasuna da**. Horren barruan sartzen dira: azterketa-material seguruen hornidura, datuen eta azterketen emaitzen konfidentzialtasuna, eta emaitzen kontsultak eta erreklamazio-prozedurak kudeatzeko prozedurak.

Zerbitzuaren kalitate-maila handia lortzeko jokabide egokien artean, honako hauek sartu behar dira:

Zerbitzuaren kalitatea ikerketan:

- Ikerketen emaitzak eskura jartzea, eta jarduera horien pareen arteko errebisioa eskatzea.
- Pertsoneri eta erakundeei buruzko informazioa eskatzea, baldin eta benetan erabilgarria izan badaiteke eskainitako produktuei buruzko ikerketa sustatzeko, eta, horrela, produktuak hobetzeko. Informazio hori biltzeko helburuak argi geratu behar du interesdun guztientzat.

Zerbitzuaren kalitatea ematean:

- Emateko konpromiso errealistak egitea, eta gero, ahal den guztia egitea, konpromiso horiek betetzeko.
- Kalitate-kontrol egokiak erabiltzea, ALTEko kideek eskainitako produktuak eta zerbitzuak zehatzak direla eta hitzartutako epeetan ematen direla ziurtatzeko.

Zerbitzuaren kalitatea edukian:

- Azterketaren galderak eta horri lotutako materialak berrikustea, mingarria edo desegokia izan daitekeen edukia eta hizkuntza saihesteko.
- Ahal izanez gero, eskakizun bereziak dituzten hautagaiei behar bezala egokitutako azterketa-ereduak edo administrazio-prozedurak eskaintzea.

Zerbitzuaren kalitatea informazioan:

- Hautagaiei beharrezkoa den informazioa ematea, azterketaren estaldura, galderen formatu motak, errubrikak, azterketa egiteko estrategia egokiak eta kalifikatzeko modua ezagut ditzaten.
- Informazio hori oso-osorik hautagai guztien esku jartzeko ahalegina egitea.
- Hautagaiei adieraztea emaitzak agiritegian zenbat denboraz gordeko diren, eta zehaztea azterketaren emaitzak nork eta zer baldintzatan emango dituen, ala ez.

Zerbitzuaren kalitatea datuetan:

- ALTEko kideen esku dauden edozein erakunde edo pertsonaren datu guztien (gordinak edo prozesatutakoak) konfidentzialtasuna babestea, eta, datu horiek beste erakunde edo talderi ematen edo haietatik jasotzen badira, haiei ere politika berbera egiteko eskatzea.

Zerbitzuaren kalitatea desadostasunetan:

- Kaltetutako pertsonak informatzeko erantzukizuna onartzea, baldin eta, ezagutzera eman ondoren, informazioa okerra dela egiaztatzen bada.
- Kaltetutako pertsoneri informatzea, baldin eta programatutako konpromisoetan desbideratze nabarmen bat ematen bada.
- Kexa edo erreklamazio bat aurkezteko eta arazoak konpontzeko hautagaiek erabil ditzaketen prozedurak deskribatzea.

2.3.7 Praktikotasuna

Proba batek, erabilgarria izan dadin, funtzionala izan behar du aplikatzeko unean. Faktore horrek kapitulu honetan deskribatutako ezaugarri askotan, guztietan ez bada, eragiten du, ezaugarrien arteko oreka eskatzen baitu. Proba bat funtzionala izatea hura garatzeko eta hedatzeko behar denaren arabera da, azterketa zer testuingurutan erabiliko den kontuan hartuta.

Edozein azterketaren praktikotasunak bi faktore ditu oinarrian:

- a) beharrezkoak diren baliabideak, azterketa operazional batek ezaugarrien arteko oreka egokia izan dezan (esate baterako, baliotasuna, fidagarritasuna eta inpaktuak) azterketa erabiliko den testuinguruan;
- b) eskura dauden baliabideak.

Azterketa praktikoa bat **eskuragarri dauden baliabideen eskaera zentzugabea inposatzen ez duena da**. Eskuragarri dauden baliabideak gaintzen badira, azterketa ez da praktikoa. Kasu horretan, azterketaren sustatzaileak azterketaren diseinua aldatuko du, edo bestela, baliabideak areagotu edo berriro esleitu beharko ditu. Muga praktikoa direla-eta bigarren aukera ezinezkoa bada, lehenengoa aukeratuko da.

Azterketa prestatzen hasi aurretik, espezifikotasunetan aldatetako aplikatuz gero azterketak erabilgarria izaten jarraituko duen ala ez jakin behar da. Hori jakitea ezinezkoa bada, ez da azterketa garatzen hasi behar.

Praktikotasuna bermatzeko jokabide egokien artean, honako hauek sartu behar dira:

- praktika ona lor daiteke baldin eta azterketaren prozesuaren alderdi guztiak kudeatzeko prozedura egokiak aplikatzen badira, azterketen garapena, kudeaketa eta balidazioa barne hartuz;
- azterketa praktikoa prestatzeko, probak prestatzeko eredu esplizitu bat hartu behar da –ikus, adibidez, *Hizkuntza-probak eraikitzeko eta aplikatzeko eskuliburua*;
- azterketa bat berrikusi edo berri bat prestatu behar den aldiro, garapen-proiektuaren kudeaketa-egitura lantzeko prozedurak eduki behar dira, funtzioak eta erantzukizunak modu argian eta integratuan esleitura.
- garapen-egutegiei eta baliabideei dagokienez, aurrerabideak gainbegiratzeko bitartekoren bat eduki behar da, eta azterketaren ekoizpen-prozesua kudeatzeko metodologia bat, azterketa martxan jartzen denerako (itemen idazketa, azterketa, moderazioa, aurretiko probak, itemen bankua, galderen prestakuntza).

Garapen-prozesua hasteko, bideragarritasun-azterketa bat egin beharko litzateke, alderdi hauek, gutxienez, aztertzeko:

- azterketa berriaren helburua;
- aurreikusitako aztertzaileentzako zailtasun-maila (esate baterako, EEMBri dagokionez);
- kanpoko faktoreak: merkatua, antzeko azterketen lehiakortasuna, gizartearen eskaerak edo eskakizunak (esate baterako, gurasoena, Hezkuntza ministerioena, etab.);

- barneko faktoreak: azterketaren konstruktuari eta edukiari lotutako teoriak, teknologiaren aurrerapenak, erakundeen parametro finkoak;
- azterketa berriari aurreikusten zaion egokitasuna eta onargarritasuna, aurreikusitako interesdun eta erabiltzaileentzat;
- azterketa berriaren kostua hartzailearentzat;
- eskuragarri dauden baliabideak honako hauek egiteko:
 - garapena
 - kudeaketa
 - emaitzen txostena
 - erreplikazioa (azterketaren etorkizuneko kudeaketak).

Azterketaren erabilgarritasunaren zehaztapena ziklikoa eta iteratiboa da; alderdi praktikoari lotutako kontsiderazioek eragina dute azterketa garatzeko prozesuaren fase guztietan hartutako erabakietan. Kontsiderazio operazionalak kontuan hartzen direnean, pentsatu behar da zer neurritan lor daitekeen eskuragarri dauden baliabideen arteko oreka hori (esate baterako, langileei, ekipamenduari, denborari eta diruari dagokienez).

2.3.8 Eragina

Eraginari buruzko bibliografia errebote-efektuaren ereduetan oinarritzen da (Alderson eta Wall 1993, Green 2003, etab.). Gero, eredu horiek eragin-modu zabalago batera eboluzionatu zuten (esate baterako, Cheng 2005, Green 2007, Wall 2005). Milanovic eta Saville (1996) lana oinarri hartuta, Saville-k (2009) *impact by design* ("diseinu bidezko eragina") zekarren eredu proposatu zuen; hau da, eragin positiboak izan ditzaketen probak diseinatzea, ekimenaren aurretik politika jakin baten ondorioei aurrea hartuz.

Onartzen da, azterketen hornitzaile gisa, ALTEko kideek eragin handia dutela hezkuntza-prozesuetan eta, oro har, gizartean, eta eragin positibo bat lortzeko moduari buruzko gogoeta ez da gerorako utzi behar. Hizkuntza eta testuinguru anitzeko hizkuntza-ikasleak egindako ebaluazioek feedbacka ematen dute, eta horrek eta azterketaren prozesuak, orobat, eragina dute bi maila hauetan gauzatzen dena:

- a) maila makro batean, hezkuntza-prozesu orokorrei dagokienez;
- b) maila mikro batean, azterketen emaitzen eraginpean dauden pertsonen (interesdunen) dagokienez.

Eragin orokorreko arloetako bat ebaluazioa eta horri lotutako alderdi pedagogikoak Europan eta mundu osoan ulertzen direla sustatzea da, eta zeregin hori ALTEri dagokio. Hori lortzeko, informazio publikoa eman, ikerketak egin, eta aholkularitza-zerbitzuak eskaini daitezke. Helburuak izan beharko luke proben xedea eta prozedurak hobeto ulertzea eta azterketei buruzko informazioa ongi erabiltzea (emaitzak, kalifikazioak, etab.).

Pertsonengan izandako eraginari dagokionez, azterketa bidezkoa dela eta ez dagoela lerratua bermatu behar da.

Irakaskuntzan eta ikaskuntzan duen eragin positiboa eraginaren alderdi garrantzitsu bat da, bi mailatan (makroan eta mikroan) ematen dena. Testuinguru horretan, aintzat hartu behar dira "ageriko baliotasuna" (probaren erreklamazioa) eta errebote-efektua. Garrantzitsua da azterketen hezkuntza-eragina ikertzeko aukera izatea, erabiltzen diren testuinguruetan. Printzipio gisa, azterketak prestatzeko ardura duten pertsonen beren azterketek eragin negatiborik ez izateko helburua izan behar dute, eta, ahal den neurrian, eragin positiboa lortzen saiatuko dira.

Eraginaren frogak ematean, jokabide egokiek barne hartu behar dituzte gutxienez honako hauek:

- a) azterketaren espezifikotasunen garapena eta aurkezpena, eta programen diseinu xeheak;
- b) laguntza profesionaleko programak azterketa erabiltzen duten erakundeentzat eta irakasle/ikasleentzat.

Hezkuntza-eragin positiboa lor daiteke, halaber, jokabide hauen bidez:

- edozein arlotako aditu egokiak identifikatzea, azterketen garapenaren alderdi guztietan lan egiteko;
- aditu egokiak prestatzea eta erabiltzea, azterketen ekoizpenean galdera/itemen idazle gisa jardun daitezten;
- aditu egokiak prestatzea eta erabiltzea, aztertzaile gisa jardun daitezten.

Era berean, prozedurak ezarri behar izaten dira azterketa abiarazten denean, eragina estimatzeko aukera emango duen informazioa biltze aldera.

Horrek jarraian zerrendatutako puntu hauei buruzko informazioa biltzea eskatuko luke:

- nor ari den azterketa egiten (hau da, hautagaien profil bat);
- nork erabiltzen dituen azterketaren emaitzak eta zertarako; nork irakasten duen azterketa egiteko eta zer egoeratan;
- zer-nolako ikastaro eta material diseinatzen eta erabiltzen diren hautagaiak prestatzeko;
- zer eragina du azterketak, oro har, publikoaren iritzietan (esate baterako, hezkuntza-arauei dagokienez);
- nola ikusten duten azterketa hezkuntza-prozesuetan zuzenean inplikaturik dauden pertsonen (esate baterako, ikasleak, aztertzaileak, irakasleak, gurasoak, etab.);
- nola ikusten duten azterketa hezkuntzatik kanpo dauden gizarte-taldeak (esate baterako, politikariak, enpresaburuak, etab.).

Informazio hori ALTEko erakundeen esku jarri beharko litzateke, txosten idatzien bidez, esate baterako, eta txosten horien bertsio egokituak, berriz, gainerako interesdunen esku.

Bildutako frogetatik abiatuta, erabiltzen den testuingururako azterketa nahikoa balioduna eta fidagarria dela erakusteko aukera izan beharko genuke. Hori, bere horretan, eragin positibo bat lortzen dela ziurtatzeko modu bat da.

2.4 Ondorioak

Erabilgarritasunaren ebidentziak ematean, jokabide egokiek, gutxienez, honako alderdi hauek jaso behar dituzte:

- a) Neurtu beharreko konstruktuen eta azterketak barne hartzen duen edukiaren jabetze-mailaren deskribapen bat.
- b) Azterketen emaitzen erabilerari lotutako ebidentziak, barne hartuta deskribapen bat, non azalduko baita nola ebidentzia horiek egokiak diren azterketen emaitzetatik ateratako inferentzia eta ekintzetarako.
- c) Erabilitako balidazio-prozeduren eta haien emaitzen deskribapen bat, eta horren barruan, egoki izanez gero:
 - azterketen errendimenduaren azpian diren prozesuen analisi logikoak eta enpirikoak;
 - azterketaren emaitzen eta beste aldagai batzuen arteko harremana, eta horren barruan, konstruktuari lotuta ez dauden balizko aldaketa-iturriak;
 - nola eratorri ziren azterketaren galderak/itemak eta nola dauden lotuta eduki edo trebetasuna menperatzearekin, egin nahi diren inferentzietarako;
- d) Baliotasunari buruzko azterlan gehiago egitea, funtsezko aldatetaren bat gauzatzen bada azterketan, azterketaren kudeaketan, aurreikusitako aztertzaileen ezaugarrietan, edo laginduko den edukiaren jabetze-mailan.
- e) Azterketen erabiltzaileei informazioa ematea, azterketan aurreikusitako emaitzen balidazio-azterlanak interpretatzen laguntzeko, hala nola gainditu/ez-gainditu erabakiak, aukeraketa eta sailkapena.
 - azpipuntuazioen bazterketa-balioa babesten duten froga logikoak eta enpirikoak;
 - balidazio-prozesurako iritziak eman dituzten adituen kopurua eta prestakuntza;
 - balidazio-prozesurako egokiak diren iritziak eskuratzeko erabilitako prozedurak;
 - azterketaren espezifikotasunen diseinuan erabilitako justifikazioa eta prozedurak (eta horren barruan aztertutako materialak, etab.);
 - Irizpideen egokitasuna zehazteko oinarriak eta prozedurak;
 - ebidentzia kuantitatiboen interpretazioari lotutako informazioa;

3. ALTEren kalitatea kudeatzeko sistema

3.1 Sarrera

ALTEko kideei beren azterketa-sistemak hobetzen laguntzeko printzipioak definitu eta tresna praktiko batzuk eman ondoren, elkarrekin aztertu zuen nola jarri praktikan printzipioak, nola gainbegiratu hobekuntzak eta estandar egokiak benetan betetzen ari ote diren. ALTEko kide gehienak printzipioekin bat etorri arren, zailagoa zen adostasuna lortzea estandarrik modu ekitatiboan ezartzeko moduaren inguruan, eta nolabait ere bide ematen zion antolakundearen eta jokabidearen aniztasunari ALTEren multzo osoaren barruan. Van Avermaet, Kuyper eta Saville-ren hitzetan (2004):

... aldeak daude ALTEko kideen artean azterketak garatzen eta erabiltzen diren antolaketa-, hizkuntza-, hezkuntza- eta kultura-testuinguruei dagokionez. Gainera, erakundearen barnean, desberdintasun handiak daude ezagutza eta tradizioetan, gai estatistikoei eta empirikoei dagokionez; hala nola datuen bilketa, datuen analisia, azterketak parekatzea, etab. Lantaldearen lehen eztabaidetan, desberdintasun horiek aztertu ziren gaur egungo antolaketa-moten eta azterketa-sistemen ikuspegitik. Konturatu ziren kalitatea kontrolatzeko sistema bat sartzea mehatxu handia izan zitekeela kide batzuentzat, beren kabuz badakitenak ez dituztela unean uneko estandar gorenak betetzen, elkarteko beste kide batzuekin alderatuta bereziki. Beraz, kalitatea kontrolatzeko sistemen inguruan landu zen ikuspegia pentsatuta zegoen antsietatea murrizteko, eta laguntza-tresna izatea nahi zen. Helburua zen kideei aukera ematea: a) beren azterketen kalitatea hobetzeko, hautagaietako inpartzialtasunaren ikuspegitik; b) negoziazioei ekiteko beren zuzendari eta babesleekin, antolaketa aldatzeko prozesu batean, behar izanez gero (adibidez, martxan zeuden hobekuntzetarako baliabideak bermatzeko). [144. or.]

Arazo horri heldu eta adostasuna bilatzeko, erabaki zen kalitatea kudeatzeko sistemen (KKS; *QMS, Quality Management Systems*) paradigma izango zela jardueraren honetarako egokiena (hala nola *ISO 9000* segidari dagokiona). KKSen helburua da erakunde baten produktuak eta zerbitzuak hobetzea, ahalik eta modurik eraginkorrean erantzuteko bezeroen beharrei, eta ondo planifikatutako eta bideratutako moduan egiten dute hori. KKS ikuspegia onartuta, kideek konpromisoa hartu zuten beren erakundearen izaera hobeto ulertzeko eta, hori egitean, beren interesdunak inplikatzeko kalitatearen arloko hobekuntzen bilaketan. Van Avermaet et al.-ek (2004) azaldu zuten:

Kideek beren azterketen kalitatea hobetzeko tresna gisa funtzionatzen du KKS, hautagaietako inpartzialtasunari

dagokionez. Azterketen prozedura eta urratsen kalitateari eta inpartzialtasunari buruzko bazkideen arteko eztabaidetarako tresna gisa ere funtziona dezake. Azkenik, azterketen hornitzaileen finantzatzaileekin eztabaidak eta negoziazioak irekitzeko ere baliabide egokia izan daiteke. Askotan, finantzaketa handitzeari eta antolaketa-aldaketaren beste alderdi batzuei esker, aukera handiagoak sortzen dira kalitatea handitzeko eta mailak igotzeko. [149. or.]

Aldaketa behar zuten arloei buruzko kontzientzia areagotzeko tresna bat sortzea helburu izanik, kalitatea bermatzeko kontrol-zerrendak (*Quality Assurance Checklists*) egin ziren, ALTEko kide guztiek eta beste azterketa-garatzailak ondo ezagutzen dituzten azterketa-zikloaren lau urratsak bereizteko:

- azterketaren garapena;
- azterketen kudeaketa;
- azterketen izapidetzea (notak, puntuazioa eta emaitzak jakinaraztea barne);
- azterketa ondoko analisia eta berrikuspena.

KKS ikuspegiak tresna bat izan nahi du kideei laguntzeko...:

- beren azterketen kalitatea hobetzen, hautagaietako inpartzialtasunaren ikuspegitik;
- negoziazioak bideratzen beren zuzendaritza taldeekin eta babesleekin, antolaketa aldatzeko prozesu batean (adibidez, martxan dauden hobekuntzetako baliabideak bermatzeko);
- autoebaluaziotik kanpoko ebaluazio batera igarotzen, estandar adostuak eta onargarriak finkatzeko.

Kalitatea kudeatzeko sistema hurrengo atalean deskribatzen den ALTE auditoretza-sistemaren oinarria da.

3.2 ALTE auditoretza-sistema: kontrol-estandarrik, kalitate-profilaren auditoretza

Estandarren azterketa formala lan-prozesu luze baten amaiera da, ALTEko kideen azterketetan auditatutako "kalitate-profilak" ezartzeko lana. Auditoretza-prozesuaren helburua da ALTEko kideek formalki eta era balidatu batean baieztatzea azterketa jakin batek, edo azterketa-multzo batek, azterketaren testuinguruari eta erabilerrari egokitutako kalitate-profila duela, *Gutxieneko estandarrik* ezartzeko 17 parametrotan oinarrituta. Azken finean, ebaluazioa bidezkoa

izango dela eta interesdunen beharrei modu egokian erantzungo diela bermatzea da helburua. Garrantzitsua da kontuan hartzea zer testuingurutan egin den lan hau eta, bereziki, ALTEko kideen eta afiliatuen aniztasuna:

- Eskubide osoko 33 kide: besteak beste, gobernu-sailak, unibertsitateak, partzuergoak eta beren hizkuntzaren ebaluazioan eginkizun bat duten azterketa-batzordeak.
- 25 hizkuntzaren ordezkari dira, eta horietatik asko hedadura txikiko hizkuntzak dira.
- Gainera, 60 afiliatu instituzional dira gutxi gorabehera, eta 500etik gora afiliatu indibidual, hezkuntzan eta hizkuntzaren ebaluazioan interesatuak.

ALTE auditoretza-sistemaren deskribapenak lotura du duela gutxi hizkuntza-azterketei buruzko literaturan izan diren eztabaidekin; zehazki, baliotasun-eskaerak oinarritzeko argudioen erabilerari buruzkoak (ikus dokumentuaren 2.3.1 eta 2.3.2 atalak). ALTE auditoretza-sistema beste teoria mota baten adibidea ere bada, "ekintza-teoria bat" edo aldaketa-prozesuak (ikus Fullan 1993, 1999). ALTEko kideek ekintzaren teoria bat behar zuten, aldaketa positibo eta jasangarri bat eragiteko gai izango dena, beren azterketen maila eta kalitatea hobetzeko.

Hasieratik bazekiten ALTEko kideen autoebaluazioa osatu egin beharko zela kanpoko "auditoretza-sistema" batekin. Sistema hori 2005-2006tik aurrera hasi ziren garatzen, eta 2007-2008ko lehen zikloan jarraitu zuen; "kalitate-profilak" ezarri ziren, ALTEko kideen azterketa-sail zabal baten bidez auditatuak. Kontuan izanik jokabide-kodea (ikus 1.3 atala) eta kalitatea bermatzeko kontrol-zerrendak, 17 parametro adostu ziren *Gutxieneko estandarrak* (GE; *Minimum Standards*, MS) finkatzeko, kalitate-profil bat ezartze aldera azterketa edo azterketa-sail bakoitzarentzat. Kalitate-profila sortzen da balidazio-argudio bat eraikiz, zeinak azaltzen duen nola betetzen dituen GEak azterketak, eta eskaera oinarritzeko froga egokiak ematen ditu. Parametro horien kanpoko azterketa formalak, auditoretza-prozesuan, estandar egokiak ezarri eta lortuko direla bermatzea du helburu. ALTEko kideek deklarazio formal bat egin eta berretsi behar dute azterketa batek edo azterketa-multzo batek kalitate-profil egokia duela azterketaren testuinguru eta erabilerarako, kontuan izanik ondorengo puntu hauek:

- Testuinguru bakoitzari azterketa-mota bat dagokio, bai eta azterketa-erabiltzaileen talde bat ere. Asmoa ez da ALTEko kideen azterketa guztientzat kalitate-estandar uniformeen multzo bakar bat ezartzea.
- Kideei galdegiten zaie eska dezatela beren kalitate-sistema eta -prozeduren auditoretza, balidazio-argudio bat lantzeko, honi begira: hots, azterketa baten edo azterketa-multzo baten kalitate-estandarrak nahikoak eta egokiak direla azterketa edo azterketa-multzo horretarako.
- Balidazio-argudioa da auditoretzaren azterketaren xedea, ez antolamendua bera (sarritan beste erregulazio-sistema batzuen bidez aztertzen dena; adibidez, ISO 9001, gobernu-erregulatzailerak, etab.).
- Auditoretza bakoitzak azterketa bat, azterketa-multzo bat edo azterketa-sistema bat hartzen du kontuan.

- Auditoretzak aholkularitza-funtzioa eta kalitatea kontrolatzearena betetzen ditu.
- Auditoretzaren helburua da bermatzea gutxieneko kalitate-estandarrak betetzen ari direla azterketaren testuingururako egokia den modu batean, bai eta jokabide egokiei buruzko gomendioak ematea ere, kalitate-estandarrak egokiak izan arren, hobetzeko aukera ematen duten kasuetan.
- Kalitate-estandarrak betetzen ez direnean, ALTEko auditoreek (ALTEko kide ere badira), auditatuekin elkarlanean, ekintza-plan bat abian jarriko dute kalitate-estandarrak landu eta ezartzeko.

3.2.1 Balidazio-argudio baten deskribapena

Honako hau da argudioaren egitura:

- **Baieztapen** bat egiten da 17 parametroetako bakoitzari buruz; azterketan GEak betetzen ari direlako argudioa berresten dute baieztapenek.
- **Informazioa** ematen da baieztapenak berresteko; informazio hori azalpen moduan aurkezten da.
- **Justifikazio** bat ere behar da informazio horri legitimitatea emateko; dagokion hizkuntza-azterketen teorian oinarritu behar du informazioak, erreferentzia eginez *Jokabide-kodeari* eta *Jokabide egokien printzipioei*, eta kontuan har daitezke, halaber, hala badagokio, aurreko esperientzia eta jokabide optimoen ereduak.
- Justifikazio horrek, gainera, balidazio-prozesuetan bildu diren **froga egokien** babes behar du. Ikuspegi hori bat dator Toulminen (2003) argudioen egiturarekin eta haren lana Bachmanen (2005) hizkuntza-probetan aplikatzearekin. Toulminen lanean, justifikazioari **bermea** (*warrant*) esaten zaio, eta ebidentziari, **babesa** (*backing*). Bachmanek (2005) dio azterketaren garatzaileak prest egon behar duela **inpugnazioei** (*rebuttal*) aurre egiteko (azalpen alternatiboak eta kontraeskarriak) eta indargabetzea helburu izango duten froga gehigarriak emateko (inpugnazio-datuak).

3.2.2 Balidazio-argudio bat eraikitzen: ALTEren gutxieneko estandarrak kalitate-profilak ezartzeko hizkuntza-azterketetan

Aurreko atalean eman den balidazio-argudioaren azalpenak erakusten du gutxieneko estandarrek (ALTE auditoretza-sistemaren muina) indartu egiten dituztela, praktikan, hizkuntza-probek kalitatea lortzeko dituzten moduak (praktikotasuna, fidagarritasuna, zerbitzuaren kalitatea, inpartzialtasuna, edukiaren baliotasuna, konstruktuen baliotasuna, irizpideei lotutako ebidentzia eta eragina).

ALTEk estandar komun multzo bat ezarri du bere kideen azterketetarako (2007), hizkuntza-proben prozesuaren etapa guztiak hartzen dituztenak: azterketak prestatzea; ariketak eta itemak idaztea; azterketen kudeaketa; kalifikazioa eta puntuazioa; azterketen emaitzak jakinaraztea; azterketen analisia; eta emaitzak jakinaraztea.

ALTEren GUTXIENeko ESTANDARRAK

PROBEN ERAIKUNTZA

1. Azterketaren helburua eta erabilera-testuingurua deskriba ditzakezu, eta zer populaziorantz den egokia azterketa.
2. Konstruktua teoriko batean oinarritzen da azterketa; adibidez, komunikazio-gaitasuneko eredu batean.
3. Irizpideak ematen dituzu egileak, epaile adituak eta aholkulariak hautatu eta trebatzeko, azterketen garapenean eta eraikuntzan.
4. Azterketa paraleloak konparagarriak dira administrazioen artean, edukiari, egonkortasunari, funtsari eta gradu-mugei dagokienez.
5. Azterketa kanpoko erreferentzia-sistema batekin lotura duela baieztatzen baduzu (EEMB, adibidez), sistema horrekiko lerrotatzaren frogak eman ditzakezu.

ADMINISTRAZIOA ETA LOGISTIKA

6. Zentro guztiak zure azterketa prozedura argi, garden eta zehatzen bidez kudea dezaten hautatzen dira, eta badute hori egiteko arauak eskuratzeko modurik.
7. Azterketa-orriak baldintza egokietan eta bitarteko seguruen bidez entregatzen zaizkie baimendutako azterketa-zentroei, bai fisikoki eta bai elektronikoki ere, eta azterketen kudeaketa-sistemak aukera ematen du azterketa-dokumentu guztiak segurtasunez eta azterna jarraitzeko moduan erabiltzeko. Sistemaren prozedura guztien konfidentzialtasuna berma daiteke.
8. Azterketen kudeaketa-sistemak laguntza-sistema egokiak ditu (adibidez, telefono-linea zuzena, web-zerbitzuak etab.).
9. Behar bezala babesten dira emaitzen eta ziurtagirien segurtasuna eta konfidentzialtasuna, baita haien inguruko datuena ere, datuak babesteko legeriaren arabera, eta datu horiek eskuratzeko dituzten eskubideen berri ematen zaie hautagaiei.
10. Azterketa-sistemak laguntza ematen die premia bereziak dituzten hautagaiei.

ZUZENKETA ETA KALIFIKATZEA

11. Zuzenketa behar bezain zehatza eta fidagarria da azterketaren helburu eta motarako.
12. Dokumentatu eta azaldu egin dezakezu nola neurtzen den kalifikazioaren fidagarritasuna eta nola biltzen eta aztertzen diren idatzizko eta ahozko errendimenduaren kalifikatzaileen lorpenei buruzko datuak.

PROBEN ANALISIA

13. Bildu eta aztertu egiten dituzu hautagaien lagin egoki eta adierazgarri bati buruzko datuak, eta espero izatekoa da haien lorpena azterketan neurtutako gaitasunen emaitza dela, ez beste faktore batzuek eragindakoa (H1, jatorri-herrialdea, generoa, adina eta jatorri-etnikoa).
14. Item eta ariketen mailako datuak (adibidez, zailtasuna, diskriminazioa, fidagarritasuna eta azterketa neurtzeko errore estandarrak kalkulatzeko) bildu eta aztertu egiten dira hautagaien lagin adierazgarri batetik abiatuta.

KOMUNIKAZIOA PARTE-HARTZAILEEKIN

15. Azterketen kudeaketa-sistemak azkar eta argi jakinarazten dizkie hautagaiei eta azterketa-zentroei (adibidez, ikastetxeei) azterketen emaitzak.
16. Informazioa ematen diezu parte-hartzaileei azterketaren testuinguruari, helburuari, erabilera egokiari, edukiari eta emaitzen fidagarritasun orokorrari buruz.
17. Informazio erabilgarria ematen diezu parte-hartzaileei, emaitzak interpretatzen eta egoki erabiltzen laguntzeko.

Auditoretza baterako prestatzean, auditatua izango den erakundeak bete egin behar du fiskalizatutako erakundearen inprimakiko ALTEren balidazio-argudioa, eta horrek aukera emango dio kasu edo argudio bat eraikitzeko bere azterketarako/azterketetarako, informazioa emanez gutxieneko estandar (GE) bakoitzerako:

1. GEak betetzeko egiten duena azaltzea.
2. Hori eginez zergatik betetzen diren GEak azaltzea.
3. Egiten denaren ebidentzia eta zer den egokia.

Gutxieneko 17 estandarrak hainbat hizkuntzatan daude:

- [български](#)
- [euskara](#)
- [norsk \(bokmål og nynorsk\)](#)
- [català](#)
- [français](#)
- [polski](#)
- [cymraeg](#)
- [gaelge](#)
- [português](#)
- [čeština](#)
- [galego](#)
- [русский](#)
- [deutsch](#)
- [italiano](#)
- [slovenščina](#)
- [eesti](#)
- [lietuviu](#)
- [suomi](#)
- [english](#)
- [magyar](#)
- [svenska](#)
- [español](#)
- [nederlands](#)

3.3 ALTE auditoretza baten ikuspegi orokorra

2007an, *Procedures for Auditing* (auditoretza-prozedurak) izeneko eskuliburua argitaratu zen, ALTE auditoretza-prozesuaren alderdi praktikoa biltzeko helburuz. 2017an eguneratu zen. Auditoreak ALTEko kideen artetik hautatzen dira, eta urtean behin prestakuntza jaso behar dute, auditoretza-lanetan jarraitzeko. ALTEko kide guztien multzo osoa da auditoretza-prozesutik sortzen diren erabakien

arbitroa, eta hori Kideen Kontseiluaren bidez gauzatu da eta, bereziki, Batzorde Iraunkorraren bitartez (txikiagoa eta kide gutxiago dituen). Azken horrek auditoretza-prozesua gainbegiratzeko ardua eskuordetzen du. Hona hemen auditoretza-prozesuaren zirriborro labur bat. Xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikus *Procedures for Auditing (PFA)*.

- Auditoretza eskatu aurretik, **auditatuak** auditoretzari buruzko **orientazio-saio** batera joan behar du.
- Behin izendatuta, auditorea auditatuarekin harremanetan jartzen da. Ondoren, auditatuaren balidazio-argudioa aztertzen du, zuzenean edo urrunetik, eta amaierako auditoretza-txostena aurkezten dio Batzorde Iraunkorrari.
- Bi irakurlek –Batzorde Iraunkorreko kide izendatuak– erreklamazioak eta frogak aztertzen dituzte. Erreklamazioek GEak behar bezala betetzen dituzten zalantza jar dezakete; beharrezkoa izanez gero, informazio gehigarria eska dezakete.
- Auditoretzak “abian” edo “aribidean” jarraitzen du puntu horiek argitu arte edo onargarritzat hartzen diren prozedura alternatiboak ezarri arte.
- GEak honela sailkatzen dira: **jokabide egokia** (JE; *Good practice, GP*), **gogobetegarria, hobetzeko gomendioekin** (HG; *Satisfactory with recommendations for improvement, RFI*) edo **hobetu beharrekoa** (HB; *In need of improvement, INI*).
- Lehenengo biek (JE eta HG) esan nahi dute bete egin direla gutxieneko estandarrik. HBk esan nahi du ez direla bete GEak.
- Auditoretza baten emaitza izan daiteke **ebatzia** (*Resolved*) edo **ebatzi gabe** (*Unresolved*).

Auditoretza baten emaitza **ebatzi gabe** denean, Batzorde Iraunkorrak **ekintza-plan** bat (*Action Plan*) eskatzen du.

3.4 Auditoretza-sistema etengabe garatzen

Auditoretza bat amaitzean, auditoreak **auditoretza-txostena** idazten du. Txosten hori, lehenik, auditatuarekin eztabaidatzen da; gero, Batzorde Iraunkorrari bidaltzen zaio, eztabaidatu eta berresteko. Auditoretza-sistemaren lehenengo urteetan, desadostasun handiak zeuden txostenen artean, auditore guztiek *Procedures for Auditing*-en jasotako jarraibideak betetzen bazituzten ere. Horren arrazoiak honako hauek ziren ziurrenik:

- diferentziak auditoreen aurrekarietan, arretari buruzko ikuspegi desberdinak sortzen zituztenak;
- oinarritzko elementuak gehiago lantzeko beharra gutxieneko parametro bakoitzaren barnean, estandarizazio hobea lortzeko aurre-auditoretzan, auditoretzan eta txostenen aurkezpenean;
- argitasun eta adostasun handiagoaren beharra parametro bakoitzaren GEak betetzeko behar diren oinarritzko elementuen inguruan.

Kontuan izanik auditoretza-txostenetako informazioaren konparazioak eta auditoreak beren erabakietara iristeko moduak, bultzada eman zitzaion Auditoretzaren inprimakiaren ALTE balidazio-argudioaren berrikuspenari (*ALTE Validity Argument of the Auditee*), zehatzago deskribatzeko gutxieneko parametro

bakoitzaren elementuen muina. Azterlan hori Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren (KKS) Interes Berezikotako Taldeak (*QMS Special Interest Group*) egin zuen.

Modu horretan lan eginez gero, auditoretzak konparagarriagoak eta gardenagoak izango dira, eta eragin txikiagoa izango dute haiengan auditatuak eta auditoreen interpretazio indibidualak.

Egindako auditoretzek, halaber, egoeraren “argazki” erabilgarri bat ere eman dute, ALTEko kideen azterketen bidez. Informazio horrek ekarpen gisa balio du prestakuntza gehigarri baterako, bai eta tailerrak antolatzeko ere, azterketak hobetze aldera. Aurretik azaldu diren auditoretza-esperientzietan oinarritu da auditoreen prestakuntza.

Ondorio gisa, esan daiteke estandarren jarraipena egiteko prozesu dinamiko bat direla KKSa eta auditoretza-prozedurak, eta xede hauetarako balio dutela...:

- azterketen kalitate-eskakizunak argitzeko, haien funtzioei eta helburuei dagokienez;
- ALTEko kideei informazio garrantzitsua emateko azterketek beren esparruetan duten egoerari buruz;
- ALTEko kideei jarraibide argiak emateko beren azterketak hobetu ditzaten;
- lehentasunak ezartzeko gaikuntza, tailerretan, aholkularitzan eta laguntza;
- azterketen balioa azaltzeko interesdunei;
- KKSa eta auditoretza-sistemak hobetzeko.

3.5 ALTEren Q marka

ALTEren Q marka (*The ALTE Q-mark*) **kalitate-adierazle** bat da, erakunde kideek erabil dezaketena beren azterketei auditoretza zorrotz bat egin dietela eta ALTEren gutxieneko 17 kalitate-estandarren oinarritzko baldintzak betetzen dituztela adierazteko. Q markak adierazten du ALTEko kide diren erakundeek kalitate- eta bikaintasun-estandar gorenak lortu nahi dituztela beren azterketetan.

Horrez gain adierazten du ALTEko auditore profesional batek zorrotz eta zehatz aztertu duela azterketa edo azterketa-multzo baten kalitate-profila, eta emaitza “ebatzia” izan dela. Emaitzak bost urterako balio du, ez bada aldaketa esanguratsu bat gertatzen auditatutako azterketaren edo azterketen arrakastarako balidazio-argudioan. Auditatu den azterketari edo azterketei bakar-bakarrik ematen zaie Q marka, baina ez erakundeari bere osotasunean.

Q markari esker, azterketaren erabiltzaileek badakite prozesu egokietan, prozedura eta irizpide fidagarrietan, eta estandar goren eta konstanteetan oinarrituta dagoela azterketa.

ALTEko kideen azterketek soilik –eta afiliazio osoa eskatzen duten afiliatu instituzionalen azterketek, baldin eta irizpide jakin batzuk betetzen badituzte– eska dezakete ALTEren auditoretza eta, ondorioz, haiek bakarrik jaso dezakete Q marka.

Q markaz saritutako azterketen xehetasun guztiak, haien erregistro-zenbakiak eta berrauditoretzarako datak *ALTE Esparruan* (*ALTE Framework*) jasota daude.

4. ALTEren laguntza eta baliabideak

4.1 Jarduerak

ALTEk hainbat jarduera egiten ditu urtean zehar elkartearen helburu nagusiak betetzeko:

- **ALTEren bilerak**

ALTEk bilerak eta batzarrak egiten ditu bi urtean behin, eta batzarraren egun bat eskaintzen dio hizkuntzaren ebaluazioari buruzko gai jakin bat jendaurrean eztabaidatzeari. Batzarrak apirilean eta azaroan egiten dira normalean, eta erakunde kide batek antolatzen ditu. Bilkuren barnean egiten dira konferentziak, hizkuntzaren ebaluazioari buruzko tailerrak, batzordeen bilerak, prestakuntza-jarduerak eta Interes Bereziko Taldeen (IBT) bilerak. ALTEren bilerak zabalik daude kideentzat eta afiliatuentzat.

2018tik aurrera, argitaratu egiten ditugu [batzarraren bibliografia](#) eta osoko saioretako eta tailerretako hizlarien aurkezpenen diapositibak, ahal den neurrian.

- **IBT (Interes Bereziko Taldeak; SIG, *Special Interest Groups*)**

ALTEren barruan, Interes Bereziko Taldeetan (IBT) parte har dezakete kideek, interesgarritzat dituzten hizkuntzaren ebaluazioaren gai espezifikoak aztertzeko. Besteak beste:

- Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua (EEMB; *CEFR, Common European Framework of Reference for Languages*)
- ALTEren KKS (kalitatea kudeatzeko sistema; *QMS, Quality Management Systems*)
- Hizkuntzaren Ebaluazioa Migrazioarako eta Integrazioarako (LAMI, *Language Assessment for Migration and Integration*)
- Ikasle gazteak (nerabeak eta umeak)
- Irakasleen prestakuntza
- Helburu espezifikoetarako hizkuntza
- Baldintza eta egoera bereziak
- Teknologia

Baliteke IBTEk ezohiko bilkura bat ere egitea, otsailean eskuarki, kide nahiz afiliatuentzat irekia.

- **Nazioarteko batzarrak**

Hiru urtean behin, gutxi gorabehera, ALTEk nazioarteko batzar bat antolatzen du, elkarlanean bere kideetako batekin. Hizkuntza-probetan adituak diren espezialistak gonbidatzen ditu, hizlari gisa aritu daitezzen osoko saioretan gai orokor bati buruz. Batzar irekia izan ohi da, eta

ponentziek hizkuntzaren ebaluazioari buruzko gai akademiko eta aplikatuekin zerikusia izaten dute.

Duela gutxi egin dira Bolonia, Paris eta Krakoviako batzarrak, eta hizkuntza-azterketen alorreko mundu mailako adituak aritu dira hizlari gisa. Gaur arte sei nazioarteko batzar egin dira, arrakasta handiz. Zazpigarrena Madrilan egingo da, 2021eko apirilean. Ikus [hemen](#) batzar horien aktak.

- **Prestakuntza**

ALTEren helburuetako bat alfabetatzea sustatzea da hizkuntzaren ebaluazioaren alorrean, bere kideen artean eta, oro har, hezkuntza-komunitatean. Helburu hori betetzeko, ikastaroak eskaintzen ditu. Besteak beste: *ab initio* prestakuntza arlo honetan hasi berri direnentzat, eta espezializazio handiko prestakuntza hizkuntzaren ebaluazioaren gai teknikoagoetan (ikus 4.3 atala, "Zerbitzuak"). Gainera, ALTEk tokiko kideak ere trebatzen ditu, beharrezkoa denean, baita auditoretzan parte hartzen dutenak ere (ikus 3. atala, "ALTEren kalitatea kudeatzeko sistema").

ALTEren iraganeko eta etorkizuneko jardueri buruz, baita parte hartzeko baldintzei buruz ere, xehetasun gehiago jakiteko, ikus ALTEren webgunea (www.alte.org) edo eskatu informazioa ALTEren idazkaritzari.

4.2 Materialak

ALTEk erreferentziatzeko gidaliburuak eta materialak eskaintzen ditu, hainbat hizkuntzatan. Denak doan deskargatu daitezke ALTEren webguneko baliabideen ataletik: www.alte.org/Materials. Hona hemen material horren lagin bat:

- **Multilingual Glossary of Language Testing Terms**

(*Hizkuntza-proben terminoen glosario eleaniztuna*)

ALTEren glosario eleaniztuna (1998) bereziki interesgarria da hizkuntza-probak sustatzeko gutxien irakasten diren hizkuntzetan, eta berriak izan daitezkeen terminoak ematen ditu, hizkuntza zabalduenetako baliokideekin batera. Glosarioaren sarrerak 10 hizkuntzatan daude: alemana, katalana, daniera, gaztelania, frantsesa, ingelesa, irlandera, italiara, nederlandera eta portugesa. Oso material erabilgarria da Europako hizkuntzen testuinguruan lan egin eta probetan eta ebaluazioetan parte hartzen duten pertsonentzat.

- **Manual for Language Test Development and Examining (Hizkuntza-probak eraikitze eta aplikatzeko eskuliburua)**

Manual for Language Test Development and Examining (2011) ALTEk argitaratu zuen, Europako Kontseiluaren Hizkuntza Politikako Unitatearen izenean. Eskuliburu hau EEMBrekin batera erabiltzekoa da eta euskaraz, nederlandsez, frantsesez eta alemanez eskura daiteke.

- **Guidelines for the Development of Language for Specific Purposes Tests** (*Helburu espezifikokoetarako hizkuntza-probak diseinatzeko jarraibideak*)
Guidelines for the Development of Language for Specific Purposes (2018) ALTEk argitaratu zuen 2011ko *Hizkuntza-probak eraikitze eta aplikatzeko eskuliburu*-ren gehigarri modura. HEH (helburu espezifikokoetarako hizkuntza) izeneko IBTa (LPS SIG) arduratu zen koordinazioaz.
- **Relating Language Examinations to the CEFR: A Manual** (*Hizkuntza-azterketak EEMBri egokitzea: eskuliburu bat*)
ALTE Europako Kontseiluarekin elkarlanean aritu zen *Relating Language Examinations to the Common European Framework of Reference for Languages: Learning, Teaching, Assessment* (2009) eskuliburuaren argitalpenean, eta eduki-analisirako laukiak (2014) garatu zituen mintzamenerako eta idazmenerako (analisi eta aurkezpena). Dokumentu guztiak Europako Kontseiluaren webgunean daude eskuragarri.
- **ALTE Materials for the guidance of test item writers** (*ALTEren materialak probetako itemen egileak orientatzeko*)
Atzerriko hizkuntza gisa ikasitako hizkuntza baten azterketak prestatzeko, idazteko, kudeatzeko eta haien emaitzak jakinarazteko prozesuaren edozein urratsetan parte hartzen duten pertsonentzat sortu zen material multzo hau (2005).
- **Language test for access, integration and citizenship: an outline for policy makers** (*Gizarteratzeko, integratzeko eta herritartasunerako hizkuntzen egiaztatze gintza: laborpen bat politika-arduradunentzat*)
Liburuxka (2016) hau LAMI SIG interes bereziko taldeak argitaratu zuen, Europako Kontseiluaren Hizkuntza Politika Unitatearen izenean. Gaur egun, italieraz eta suomieraz ere eskura daiteke.
- **ALTEren Can do ("Gai da") proiektua**
ALTEren *Can Do* proiektuak garatu eta balidatu egin zuen errendimenduarekin lotutako eskala-multzo bat, eta ikasleek hizkuntza batean benetan zer egin dezaketen deskribatu zuen (2002). Proiektuak ekarpen handia egin zion EEMBren garapenera, eta 2001eko EEMB dokumentuaren D eranskinean aipatzen da.
Can Do proiektua hizkuntza hauetan eskura daiteke:

<u>català</u>	<u>suomi</u>	<u>norsk</u>
<u>dansk</u>	<u>français</u>	<u>português</u>
<u>nederlands</u>	<u>deutsch</u>	<u>español</u>
<u>english</u>	<u>italiano</u>	<u>svenska</u>
- **Content Analysis Checklists** (*Edukiaren analisirako kontrol-zerrendak*)

Ariketa eta azterketetarako kontrol-zerrendak egitea eta deskribatzea (2001):

General Checklist (Kontrol-zerrenda orokorra)
Reading Checklist (Irakurmenaren kontrol-zerrenda)
Writing Checklist (Idazmenaren kontrol-zerrenda)
Listening Checklist (Ahozko ulermenaren kontrol-zerrenda)
Speaking Checklist (Mintzamenaren kontrol-zerrenda)
Structural Competence Checklist (Egiturazko gaitasunaren kontrol-zerrenda)

- **Checklists for Single Tasks** (*Ariketa bakarretarako kontrol-zerrendak*)
Edukiaren analisirako kontrol-zerrenda hauek ariketa bakar batean aplikatzeko sortu ziren (2001):
Single Reading Task Checklist (Irakurmen-ariketa bakarretarako kontrol-zerrenda)
Single Writing Task Checklist (Idazmen-ariketa bakarretarako kontrol-zerrenda)
Single Listening Task Checklist (Ahozko ulermen-ariketa bakarretarako kontrol-zerrenda)
Single Speaking Task Checklist (Mintzamen-ariketa bakarretarako kontrol-zerrenda)
Single Structural Competence Task Checklist (Egiturazko gaitasunaren ariketa bakarretarako kontrol-zerrenda)
- **Quality Assurance Checklists** (*Kalitatea bermatzeko kontrol-zerrendak*)
Kontrol-zerrendak (2001) azterketak prestatzeko zikloaren etapa bakoitzari dagozkio:
Quality Assurance Checklist 1 - Test Construction (Kalitatea bermatzeko 1. kontrol-zerrenda – proba prestatzea)
Quality Assurance Checklist 2 - Administration and Logistics (Kalitatea bermatzeko 2. kontrol-zerrenda – administrazioa eta logistika)
Quality Assurance Checklist 3 - Marking, Grading & Results (Kalitatea bermatzeko 3. kontrol-zerrenda – puntuazioa, kalifikazioa eta emaitzak)
Quality Assurance Checklist 4 - Test Analysis and Post-Exam Review (Kalitatea bermatzeko 4. kontrol-zerrenda – azterketa ondoko analisia eta berrikuspena)
- **ALTE Bibliography of Members's work** (*ALTEko kideen argitalpenen bibliografia*)
ALTEk bilduma eguneratu bat osatu du elkarteko kide diren erakundeen ordezkariak idatzitako ponentzia, artikulua, liburu eta abarrekin.

4.3 Zerbitzuak

4.3.1 ALTEren ikastaroak

ALTEk prestakuntza eskaini ohi die Europa osoan ebaluazioaren profesionalei, irakasleei eta hizkuntza-azterketekiko interesa duten pertsona guztiei. ALTEren urteroko uda-ikastaroez gainera, prestakuntza-saioak antolatzen dira batzarren aurretik eta ondoren, herritar guztientzat zabalik.

Bestetik, ALTEk badu esperientzia neurrira eginiko ikastaroak antolatzen, beste erakunde batzuek eskatuta (kideek nahiz kanpoko erakundeek). Ikastaroak hiru mailatakoak dira, parte hartzaileei eskatzen zaien esperientzia-mailaren arabera. Hona hemen orain arte eginiko ikastaro batzuk. Zerrenda ez da guztiz zehatza eta beste gai batzuk ere landu litezke:

● 1. maila – Hizkuntza-proben hastapenak

Hizkuntza-probei buruzko teoria eta praktika menderatzen ez dituzten hizkuntza-irakasleentzat eta profesionalentzat. Maila honetako gure ikastaro ezagunenak honako hauek dira:

- hizkuntza-ebaluazioari buruzko oinarrizko ikastaroa: hastapenak;
- hizkuntza-azterketari buruzko sarrera-ikastaroa;
- itemak idazteari buruzko prestakuntza-ikastaroa.

● 2. maila – Profesionalentzako hizkuntza-probak

Ebaluazioaren printzipioak eta praktikak menderatzen dituzten hizkuntzaren profesionali zuzenduak dira, beren lanerako bereziki egokiak diren hizkuntza-ebaluazioaren gai jakin batzuetan sakontzen laguntzeko. Honako hauek dira maila honetako ikastaroak:

- idazteko/irakurtzeko/entzuteko/hitz egiteko gaitasunen ebaluazioa;
- hizkuntzaren ebaluazioa helburu akademikoekin;
- hautagai gutxiago dituzten azterketen balidazioa;
- hizkuntzak ebaluatzeko estatistikak;
- bikaintasuna ebaluazioaren profesionalentzat;
- FACETS analisiak: sarrera;
- hizkuntza-probak ekoizteko eta balidatzeko teknologia;
- hizkuntzak egiaztatzen dituzten erakundeen azterketen kudeaketa.

● 3. maila – Adituentzako hizkuntza-probak

3. mailakoak hizkuntza-proben gai teknikoei buruzko ikastaro espezializatuak dira. Oso ikastaro teknikoak dira, eta esperientzia sendoa eskatzen dute hizkuntza-probei

buruzko teorian eta praktikan. Honako hauek dira maila honetako ikastaroak:

- FACETS analisiak: aurreratua;
- hizkuntza-probetarako egiturazko ekuazioen modelizazioa;
- item diferentzialaren funtzionamendua.

4.3.2 ALTEren balidazio-unitatea

ALTEren balidazio-unitateak zerbitzu-sorta bat eskaintzen die azterketen hornitzaileei eta hizkuntza-ebaluazioan diharduten talde txikiei. Besteak beste, azterketen eta itemen analisi estatistikoa, kalifikatzaileen errendimenduaren analisi, hautagaien ezaugarri buruzko txostenak, eskualde- eta nazio-mailako hizkuntzaren azterketari eta erabilerari buruzko ikerketa, auditoretzatarako prestatzea, txostenak editatu eta berrikustea, eta ebaluazioari buruzko artikulua edo aurkezpenak prestatzea. ALTEren balidazio-unitateak berriki abian jarri dituen proiektuen artean, honako hauek aipa daitezke:

- aurretiko probetan eta *in vivo* probetan itemek duten errendimenduari buruzko Rasch-en eta itemen analisiaren txostenak;
- kalifikatzaileen errendimenduaren analisi ahozko eta idatzizko kalifikazioan;
- kalifikatzaileak trebatzeari eta gainbegiratzeari buruzko artikulua berrikustea, aldizkari akademikoetara aurkeztu aurretik;
- kanpoko ebaluazioa bigarren hezkuntzan sartzeak duen eraginari buruzko ikerketa;
- azterketa nazionalen hornitzaileentzako auditoretza-dokumentazioa aurkeztu aurreko berrikuspena;
- Europar Batasunak finantzaturako ikerketa eta txostena langile migratzaileek lantokian harrera-herrialdeko hizkuntza erabiltzeari buruz.

ALTEren balidazio-unitaterako laguntza-eskaerak elkarrean idazkaritzan aurkeztu behar dira, eta elkarteko kide diren erakundeetako nahiz kanpoko taldeek edo norbanakoek eska dezakete laguntza.

Bibliografia

- American Educational Research Association, American Psychological Association and National Council on Measurement in Education. (1985). *Standards for Educational and Psychological Testing*. American Educational Research Association Publishing.
- American Educational Research Association, American Psychological Association and National Council on Measurement in Education. (1999). *Standards for Educational and Psychological Testing*. American Educational Research Association Publishing.
- American Educational Research Association, American Psychological Association and National Council on Measurement in Education. (2014). *Standards for Educational and Psychological Testing*. American Educational Research Association Publishing.
- Alderson, J.C. eta Wall, D. (1993). Does washback exist? *Applied Linguistics*, 14(2), 115–129.
- Bachman, L. F. (1991). *Fundamental Considerations in Language Testing*. Oxford University Press.
- Bachman, L. F. (2005). Building and supporting a case for test use. *Language Assessment Quarterly*, 2(1), 1–34.
- Bachman, L. F. eta Palmer, A. S. (1996). *Language Testing in Practice*. Oxford University Press.
- Canale, M. (1983). From communicative competence to communicative language pedagogy. In J.C. Richards eta R. W. Schmidt (Ed.), *Language and Communication*, (2–14 or.) Longman.
- Canale, M. eta Swain, M. (1980). Theoretical bases of communicative approaches to second language teaching and testing. *Applied Linguistics*, 1, 1–47.
- Cheng, L. (2005). *Changing Language Testing Through Language Teaching: A Washback Study*. UCLES/Cambridge University Press.
- Council of Europe. (2001). *Common European Framework of Reference for Languages: Learning, Teaching, Assessment*, Cambridge University Press. [euskaraz: Europako Kontseilua – HABE. (2005). *Ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa*. http://www.ikasbil.eus/mod/habecms/view.php/irakasbil/didak/teka/europako_erreferentzia_marko_bateratua
- Council of Europe. (2009). *Relating Language Examinations to the Common European Framework of Reference for Languages: Learning, Teaching, Assessment (CEFR). A Manual*. Europako Kontseilua.
- Fullan, M. (1993). *Change Forces: Probing the Depths of Educational Reform*. Falmer Press.
- Fullan, M. (1999). *Change Forces: The Sequel*. Falmer Press/Taylor & Francis, Inc.
- Green, A. (2003). *Test Impact and EAP: A Comparative Study in Backwash Between IELTS Preparation and University Pre-sessional Courses*. [Doktorego-tesia]. University of Surrey.
- Green, A. (2007). *IELTS Washback in Context: Preparation for Academic Writing in Higher Education*. UCLES/Cambridge University Press.
- International Language Testing Association. (2000). *ILTA Code of Ethics*. https://www.iltaonline.com/resource/resmgr/docs/ILTA_2018_CodeOfEthics_Engli.pdf
- Joint Committee on Testing Practices. (2004). *Code of Fair Testing Practices in Education*. <https://www.apa.org/science/programs/testing/fair-testing.pdf>
- Jones, N eta Saville, N. (2016). *Learning Oriented Assessment: A Systemic Approach*. UCLES/Cambridge University Press.
- Messick, S. (1980). Test validity and ethics of assessment. *American Psychologist*, 35(11), 1012–1027.
- Messick, S. (1989). Validity, in R. Linn (Ed), *Educational Measurement* (Third edition), (13–103. or.) Macmillan.
- Milanovic, M. eta Saville, N. (1996). *Considering the Impact of Cambridge EFL Examinations*. [Barne-txostena], Cambridge ESOL.
- Saville, N. (2009). *Developing a model for investigating the impact of language assessment within educational contexts by a public examination provider*. [Doktorego-tesia]. University of Bedfordshire.
- Toulmin, S.E. (2003) *The Uses of Argument*. Cambridge University Press.
- Van Avermaet, P., Kuijper, H. eta Saville, N. (2004). A Code of Practice and Quality Management System for international language examinations, *Language Assessment Quarterly*, 1(2–3), 137–150.
- Wall, D. (2005). *The Impact of High-Stakes Examinations on Classroom Teaching: A Case Study Using Insights from Testing and Innovation Theory*, UCLES/Cambridge University Press.
- Weir, C. J. (2005). *Language Testing and Validation: An Evidence-based Approach*. Palgrave Macmillan.
- Widdowson, H. G. (1978). *Teaching Language as Communication*. Oxford University Press.
- Widdowson, H. G. (1983). *Learning Purpose and Language Use*. Oxford University Press.



HADE

Erakunde autonomiaduna



KULTURA ETA HIZKIALITZA
POLITIKA GARA